

# Tratu onez

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXEETAN  
BIZIKIDETZA HOBETZEKO VI. KANPAINA



## Ikasgelako arauak eta proaktibitatea

*Diziplina positiborantz*



Nafarroako  
Gobernua







# Tratu ONEZ

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXEETAN  
BIZIKIDETZA HOBETZEKO VI. KANPAINA

## **Ikasgelako arauak eta proaktibitatea**

*Diziplina positiborantz*



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Izenburua:

IKASGELAKO ARAUAK ETA PROAKTIBITATEA. Diziplina positiborantz  
TRATU ONEZ. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan bizikidetzaren hobetzeko  
VI. Kanpaina.

Egilea:

Leonor Pérez Casajús (Bizikidetzarako Aholkularitza)

© NAFARROAKO GOBERNUA  
Hezkuntza Departamentua, 2012

Diseinua eta maketazioa: [proyectos@anacobo.com](mailto:proyectos@anacobo.com)

# Aurkezpena

*Irakasle talde preziatua:*

*Hezkuntza Departamentuak biziki interesatua da ikastetxeetan bizikidetza etengabe hobetzeko. Ikasturte honetan ikastetxeek bukatu dituzte beren bizikidetza planak moldatzez 47/2010 Foru Dekretuan agintzen denari jarraikiz. Horrek lan handia ekarri die ikastetxe guztiei. Garrantzi handikoa da lan honek bizirik iraun dezan. Kontua ez da plana egin eta ondoren kajoi batean sartzea. Aitzitik, erreferentea izan behar luke bai bizikidetzaren kudeaketan bai bizikidetza ikasi eta irakasteko.*

*Hona hemen, beraz, "BIENTRATANDO / TRATU ONEZ", Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan bizikidetza hobetzeko VI. kanpainan. Aurreko bost kanpainetan bezala, honek ere haien lanerako osagarri eta lagungarri txiki bat izan nahi luke.*

*Kanpainaren jatorrizko titulua "BIENTRATANDO" da, hizkuntza mugak jakinaren gainean hautsiz egindako jokoa. Bagenekien erdaraz maltratar aditza bazela; ez ordea bientratar aditzik... baina zergatik ez hasi erabiltzen? (badakigu euskaraz "tratu onez izenarekin ez dugula beste hainbeste iritsi).*

*VI. kanpainak bi testu ditu osagai: bat irakasleentzat eta beste bat ikasleentzat:*

- 1. Ikasgelako arauak eta proaktibitatea, diziplina positiborantz.*
- 2. Ordezkarriak prestatzeko agenda.*

*Irakasleentzako dokumentua daukazu esku artean. Ikusiko duzun bezala, ideia asko eta onak aurkezten dira bertan ikasgelaren egunez eguneko lana errazteko, eta bai, eranskin batean, material osagarriak ere. Material hauek guztiak ikasgelan, gehienbat Bigarren Hezkuntzakoetan, egindako irakaslanaren ondorio dira eta Bizikidetzarako Aholkularitzak gai horren gainean prestakuntza eman duenetako ikastetxe askotan erabili dira.*

*Bistan da material hau probetxu gutxikoa izanen dela harekin batera irakasleen lana heldu ez bada: zuek izanen zarete zuen ikastetxeetako bizikidetza zertan den jakinda materiala praktikara eraman eta, on iruditzen bazaizue, zuen bizikidetza planetan txertatuko duzuenak.*

*Eskerrik asko zuen lanagatik.*

José Iribas Sánchez de Boado  
Hezkuntza Kontseilaria





# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b> .....	7
<b>2. Oinarriak.</b> Zergatik araudi proaktiboa?.....	9
2.1. Proaktibitate kontzeptua .....	9
2.2. Bizikidetzakudeatzeko ereduak eta araudia.....	10
2.3. Hezkuntza funtzioa .....	10
<b>3. Araudiaren eraginkortasuna</b> .....	11
3.1. Irakasle taldearen adostasuna .....	11
3.2. Araudia prestatzen parte hartzea .....	12
3.3. Eraginkortasuna gutxiagotzen duten faktoreak.....	13
3.4. Eraginkortasuna gehitzen duten faktoreak.....	14
<b>4. Nahi ez diren jokabideen prebentzioa</b> .....	15
4.1. Irakasleen jarrera.....	16
4.2. Ikasgelako programazio didaktikoa .....	16
4.3. Mahaien kokapena ongi diseinatzea.....	18
4.4. Klasearen hasiera kontrolatzea .....	19
<b>5. Nondik hasi?</b> Prozesuaren azalpena .....	21
5.1. Lehenengo urratsa: ikasturtea hasi aurretik edo hasierako ebaluazioaren ondoren bilduko gara .....	21
5.2. Bigarren urratsa: taldeari proiektua azalduko diogu .....	25
5.3. Hirugarren urratsa: hasiko gara arauak erabiltzen eta arauen ondorioak aplikatzen.....	26

<b>6. Bestelako neurri eta estrategia proaktiboak</b> .....	33
6.1. Ikasgelako erregistroa eta irakasgaiko kalifikazioa .....	33
6.2. Barne-hizketa .....	34
<b>7. Eranskinak</b> .....	37
1. Eranskina. Nola kudeatzen dut nire gela? .....	39
2. Eranskina. Talde-lanaren erregistroa.....	40
3. Eranskina. Jokabidearen eta jarreraren erregistroa .....	41
4. Eranskina. Arauak eta ondorioak.....	42
5. Eranskina. Gogoetarako fitxa.....	45
6. Eranskina. Arauen beharra .....	46
7. Eranskina. Ikasgelako erregistroa.....	47
8. Eranskina. Barne-hizketa: berdinen arteko harreman txarra .....	49
<b>8. Material osagarriak</b> .....	53
<b>9. Bibliografía</b> .....	57

# 1. Sarrera

Lan honen helburua da ikasgela kudeatzeko hezkuntza ereduak esperimentatzen ahalegintzen diren irakasleei laguntzea. Une honetan badirudi zabaltzen ari dela zigorretan bakarrik oinarritzen diren ereduak aurkako jarrera, horiekin ezin ditugulako kontrolatu ikastetxeetan eta, bereziki, gela barruan gertatzen diren disrupzio fenomenoak, diziplina eza edo mota eta maila askotako indarkeria moduak.

Zaila iruditzen zait hain toki txikian azaltzea lagungarria izateko asmo handia duen lana. Baina hainbat urtetan ikastetxe askorekin bizikidetzako prestakuntzan lan egin ondoren, ikusi dut nire lankideek izugarritzko gaitasuna dutela gutxiarekin gauza handiak egiteko; beren konpromisoa, dedikazioa eta sormena erakusten du horrek.

Edonola ere, ikastetxean prestakuntza autonomia diseinatzeko balio dezake lan honek (planteatu daiteke lantaldeko prestakuntza modalitatearekin edo informazio saio gisa). Prestakuntza hau ikasgelako araudiaren proiektua gertatzeko abiapuntua izaten ahal da, Bizikidetzaren Planaren barruan.

Materialak bi formatu ditu: argitalpena eta edizio digitala. Argitalpena sei ataletan banatuta dago eta, horrez gain, zortzi eranskin, material osagarrien zerrenda eta bibliografia ditu.

Lehenbiziko sei ataletan oinarriak eta ikasgelako arau proaktiboak prestatzeko proposamenaren azalpena ematen dira. Ondoren, aurreko ataletan aipatzen diren eranskinak agertzen dira: pertsona edo lantalde bakoitzak bere egoeraren eta beharren arabera egokitu ditzakeen eta egokitu behar dituen orientabideak. Material osagarrien zerrendan horietako bakoitzaren edukia labur azaltzen da, baina materialak berak argitalpenarekin batera doan CDan soilik agertzen dira. Gainera, Hezkuntza Departamentuaren Bizikidetzarako Aholkularitzaren web orrian ere jaisten ahal dira.

Proiektuaren eta bere zehaztapenaren alderdi zenbaiten funtsezko oinarria izan den bibliografia ere azaltzen da, iruzkin labur batekin. Gainerako materialak bizikidetzaren alde egindako urtetako lanaren emaitzak dira, ikastetxeetan eginak, nik neuk gelan egindakoa edo lankide askorena, alegia, orain dela hamar urte baino gehiago sinetsi zutenena bizikidetzaren bere horretan helburua izateaz gain ikasketa-irakaskuntzako edukia ere badela.



## 2. Oinarriak.

### *Zergatik araudi proaktiboa?*

#### 2.1. PROAKTIBITATE KONTZEPTUA

Proaktibitatea jarrera pertsonal bat da, bultzatzen gaituena erabakiak eta ekimenak hartzera eta horien emaitzez arduratzera. Hots, uneoro zer egin nahi dugun eta nola jardun nahi dugun erabakitzea da.

Pertsona batzuek proaktibitatea garatu dute barrutik atera zaielako motibazioa baina ez dutenek halakorik egin, edo maila apalean egin dutenek, jarrera hori bultzatuko duten kanpoko motibazioak behar dituzte.

Araudiaren testuinguruan proaktibitate kontzeptua erreaktibitate kontzeptuaren aurkakoa da. Jarrera erreaktiboa da bultzatzen duena iraganari eta alde txarrei erreparatzera, begiratzera eta aztertzeraz –kasurik onenean– zein den zigorrik neurrikoena eta justuena egindako akatsarentzat. Pertsonak baino gehiago inporta du egindakoak.

Jarrera proaktiboak, aldiz, iraganean eta ekintzetan oinarritzen da, baina soilik ekintza bat diagnostikatzeko eta aztertzekeo abiapuntu bezala. Garrantzitsuena da helburu bezala izatea pertsonak gogoeta egin dezala, gertatua konpondu eta zuzendu dezala, eta gerora hobetzeko akatsetatik ikasi dezala. Beraz, pertsonari lagundu behar zaio barneratzen bere ekintzen ondorioen erantzule izan behar duela eta, horrela, pertsona bezala garatzen lagunduko zaio.

Araudi erreaktiboak ezartzen du zer egin behar den eta, betetzen ez bada, zigorrak ezartzea aurrez ikusten du. Araudi proaktiboak, ordea, beste hau proposatzen du: jokabideei buruz gogoeta egitea, arauen zergatiak azaltzea, zer egin nahi duten hautatzeko aukera berrien aurrean paratzea ikasleak, ekintzaren hautuaren eta hautuaren ondorioaren arteko erlazioaz ohartaraztea, eta akordio eta konpromisoen bidez elkar ulertzea.

## 2.2. BIZIKIDETZA KUDEATZEKO EREDUA ETA ARAUDIA

Araudirako proiektu hau oinarritzen da abuztuaren 23ko 47/2010 FDak jasotzen duen bizikidetzaren kudeaketa eredu integratuan. Eredu hori bukaerako bibliografian agertzen diren lan batzuetan azaltzen da.

Eredu horretan uztartzen dira zigorren ereduaren alderdirik baliagarrienak eta harremanen ereduaren alderdirik hezitzaileena; hala ere, modu desberdinetan lotu daitezke biak. Araudi honetan lehentasuna ematen zaio harremanen ereduari (gogoeta, aldean arteko elkarrizketa, konpromisoa, elkarlana, bitartekotza...) diziplinarekin zeharrik ez duten gatazken kasuan, hala nola, nahigabeko disrupzioan edo harreman txarretan. Halaber, lehentasuna ematen zaio bizikidetzaren aurkako jokabideak gertatzen direnean (nahitako disrupzioan edo bideratu daitezkeen diziplinarik gabeko jokabideetan).

Zigorren eredia erabiliko da, ikastetxeko Bizikidetzeta Araudian ezarritakoaren arabera, bizikidetzaren aurkako jokabideek irauten dutenean aurreko hezkuntzako eskuhartzea izan arren edota diziplinarik gabeko egoera larrietan edo edozein indarkeria motaren kasuetan.

Araudian ezarritako zigor bat jartzen denean, aurrerago harremanen bideari heltzen saiatu behar da, Bizikidetzeta Batzordearen laguntzarekin beharrezkoa bada.

## 2.3. HEZKUNTZA FUNTZIOA

Ikasgelako giroa hobetzen duenez, araudia lagungarria da ikasleek errendimendu hobez eskuratu ditzaten ikaskuntzak, ez bakarrik irakasgaien edukiekin lotutakoak, baizik eta bizikidetzarekin eta harreman pertsonalekin lotutakoak ere. Argi dago guztiok sentitzen garela hobeki gauzak ongi doazenean.

Araudiaren izaera proaktiboari esker ikasleei laguntzen ahal diegu bizikidetzaren ikaskuntzan; baina hezitzailea ere bada, lantzen dituelako gaitasunak garatzea ahalbidetzen duten hezkuntza osoaren alderdiak:

- ▶ Pentsatzen irakasten dugu: gure jokabideez, jokabide horien zergatiaz, ondorioez eta alternatibez, arazoek konponbideez...
- ▶ Gatazkek sortzen dituzten emozioak erregulatzen ditugu, besteak beste, erantzun oldarkorrek edo agresiboak kontrolatuz, enpatia sustatuz, aspertzea kontrolatuz edo pazientzia garatuz.
- ▶ Balioetan hezten dugu: askatasuna erantzukizunari loturik, jarrera kritikoa, errespetua, elkarlana, ahalegina...
- ▶ Entzutea eta indarkeriarik gabeko komunikazioa bezalako trebetasun sozio-komunikatibo positiboak garatzen ditugu, akordio eta konpromisoetara heltzeko.

# 3. Araudiaren eraginkortasuna

Sistema honen onurak argi nabaritzen dira hasieratik. Izan ere, bi aste inguru behar dira gelan lanerako giroa eta harreman onak lortzeko. Jokabide disruptibo eta/edo diziplina gabekoei dagokienean erresistentzia handiagoa duten taldeekin denbora gehiago behar da, merezi du baina. Onurek ikasturte bukaerara arte irauten dute, uneren batean atzera egin arren, edozein ikasketa prozesutan bezala. Oporraldiak, azterketa garaiak edo araudia aplikatzearekiko irakaslea laxotzea sarri prozesuan atzera egitea dakarten faktoreak dira.

Irakasleek trabarik gabe lan egiteko eta errespetatuak sentitzeko duten eskubidea ez da beti aintzat hartzen. Baina eskubide hori betetzen bada eta, horrez gain, gelan giro atsegina eta positiboa badaude, gure motibazioa eta pozibidea handitzen dira, eta hori transmititu eta besteei kutsatzen zaie. Era berean, garrantzitsua da ikasleek nabaritzea lanerako girodun eta harreman oneko gela batean ongi sentitzen garela eta gusturago egiten dugula lan; bizipen hori izatea garrantzitsua da. Izan ere, taldea ordenatu eta kohesionatu denean konturatzen dira lehenbizikoz neska-mutiko batzuk gustuko dutela lan egitea eta denok dugula gure tarteak.

## 3.1. IRAKASLE TALDEAREN ADOSTASUNA

Onera izanen litzateke ikasgelako araudi proaktiboaren ezarpena irakasle talde osoaren egitasmo kolektiboa izatea. Baina maiz, ikastetxeetako errealitateak eta dinamikek zaildu egiten dute hori. Lan zaila da, berez, irakasle talde osoak arauak prestatzeko eredu bera jarraitzea, baina egoera hori suertatuko balitz ere, litekeena da taldeko guztiek ez jokatzeko proiektuarekiko modu koherentean, edota hura ez aplikatzea modu jarraitu eta zorrotzean.

Horregatik, zentzu horretan, bat egiten dut Juan Vaello-k (2007) proposatutakoarekin: onena da soilik irakasle taldearen zati batek eta ikastetxeko orientatzaileak osatutako *mikrotaldetan* lan egitea. Hemen *araudi-talde* deituko diegu.

Lanerako modu hau hainbat ikastetxetan jarri da abian azken hamarkadan, eta honakoa erakutsi du: errazagoa da hiruzpalau irakasleko talde batek ikasgelako araudiari buruzko benetako adostasuna iristea eta bere egitea, irakasle talde osoak hori lortzea baino. Egia da zenbat eta gehiago izan hobe dela, haatik, ezinbestekoa

da proiektuan parte hartzen duten guzti-guztiek proiektuan konfiantza izatea, prest egotea adostutako planteamenduaren arabera jokatzera eta sentitzea jarraitutasunez aplikatzeko gai izanen direla.

Taldeko kideren batek ez baditu behar diren koherentzia eta pertseberantzia edo ez badira akordioak errespetatzen, gainerakoei kalte larria eragin diezaike ikasleentzat fidagarria izateari utziko diolako, une horretan behintzat. Taldearen fidagarritasuna, errespetua eta itzal morala berreskuratzeko, hartutako erabakiei eusten diotenek ahalegin handiagoa egin beharko dute hori frogatzeko. Horregatik da hain garrantzitsua parte hartzen dutenek *benetan sinestea*.

Edozein modutan, ez denean lortzen araudi-talderik sortzea, orduan ere posible da sistema banaka baliatzea, hots, irakasle taldeko kide batek plana bere taldeei azaltzea eta soilik bere irakasgaien ezartzea. Pentsatzekoa den bezala, diziplina positiboa irakasgai bakarrean lantzeko batean baino gehiagotan lantzeko baino denbora gehiago eta ahalegin pertsonal handiagoa behar dira, errazagoa baita ikasleengan ohitura positiboak sortzea horretarako astean ordu gehiago dituztenean.

Nire esperientziak erakutsi dit, nekezagoa izan arren, araudia eraginkorragoa dela egitasmoan oso inplikatur dagoen pertsona bakar batek aurrera eramaten duenean. Noski, horrek salbatu egiten du irakasgai bateko giroa eta pertsona horren lana, baina ikasleen garapen osoaren ikuspuntutik aukera garrantzitsua galtzen da ikasleei hezkuntza prozesuan zehar laguntzeko, modu kolektiboan lan eginez gero indarra eta bultzada handiagoak dira eta.

### **3.2. ARAUDIA PRESTATZEN PARTE HARTZEA**

Bestalde, begiratutako bibliografian gehienez esaten da arauak eraginkorrak izanen badira, ikasleekin elkarlanean prestatu behar direla. Hori ideala denik ukatu gabe, aukera horren mugak kontuan hartzea komeni da.

Askotan gertatzen dena da lan hori jarduera segida batean bihurtzen dela non, gure laguntzarekin, hasieratik aurrez ikusia genuen emaitzara iristen den azkenean. Gainera, zenbat eta jokabide disruptibo gehiago metatu talde batean, orduan eta zailagoa da ikasleak sakon eta serio inplikatzera araugintzan.

Hartara, ondoko ereduak proposatzen dut: proposatutako araudia ikasleen aurrean azaltzea eta arrazoitzea eta gero taldeak berrikustea. Berrikuspenean eskatuko diegu inori kalte egin gabe hasierako proposamena hobetuko duten alternatibak proposatzeko, hau da, taldeko pertsona guztiendako (irakasleak barne) onuragarriak izanen direnak.



### 3.3. ARAUDIAREN ERAGINKORTASUNA GUTXIAGOTZEN DUTEN FAKTOREAK

Aipatutako alderdiez gain, badira araudiaren arrakasta baldintzatzen duten beste batzuk. Baldintza horiek betetzen ez direnean proiektuaren eraginkortasuna gutxitzen da eta guztiz galdu ere egin daiteke. Behin baino gehiagotan, esperientzia jakin baten porrotaren zergatiak aztertzerakoan ikusi dugu ondoko faktoreren bat dagoela:

→ **Kontraesana, proposamenaren proaktibitatearen eta aplikatzen duenaren errektibitatearen artean:** *eginen dut, baina honek benetan merezi duena da...*

Demagun irakasleak ikasle bati gogoetarako fitxa (5. eranskina) eman diola. Proiektuaren arabera, fitxa hori tresna proaktiboa da, bilatzen duelako ikasleak gogoeta zuzendu baten ondoren erabakitzea zer egin nahi duen etorkizunean eta zer bitarteko jarri behar dituen bere xedea erdiesteko. Gainera, proiektuan zehazten da, geroago irakasleak ikaslearekin solasaldi laburra izanen duela iritziak trukatzeko, pentsatzen laguntzeko, gertatua argitzeko eta elkar ulertzeko. Irakasleak gogo txarrez eman badio fitxa ikasleari eta ez badio hitz egiteko deitu, baliabidea erabili den modua desagokia da, eta baita kaltegarria ere.

Horrela erabilita, tresnak bere balioa galtzen du.

→ **Koherentzia eta irmotasun falta araudia aplikatzerakoan:** *esaten dut baina ez dut egiten.*

Ikasleek baldin badakite ariketa bat keinuen bidez egin behar dela, hitzik gabe, eta hitz egiten duena jardueratik kanporatuko dela, esandakoa bete egin behar da, araua hautsi duena normalean arauak errespetatzen dituen norbait izan arren.

Hala egin ezean autoritatea galtzen da.

→ **Pertseberantziari ez eustea:** *esaten dut baina ez dut beti egiten.*

Desagerrarazi nahi ditugun jokabide motak aukeratu ondoren, halakoren bat ikustean beti aplikatu behar ditugu ondorioak. Bestela, ikasle batzuek nahita eraginen dituzte horrelako egoerak, jolas edo proba moduan, gaurkoan araudia aplikatuko den ala ez ikusteko.

Ekina ez denak indarra, zorrozatasuna eta fidagarritasuna galtzen ditu.

→ **Zorrozatasuna** (beste gauza bat da zurruntasun falta) **proposamena aplikatzerakoan.** Batzuetan araudia ez da bere osotasunean jarraitzen eta, aldiz, arauditaldeko kide bakoitzak bereziki interesatzen zaizkion zati xeheak hartzen ditu. Nahiz eta material guztiak kasuan kasuko testuingurura egokitu behar diren (ez dira ez txantiloia ez errezetak), garrantzitsua da proiektuaren eskema osoa hartzea.

*Mokaduka* hartuz gero, osotasuna eratzen duten elementuen sinergia galtzen da eta, ondorioz, proiektuaren gaitasun eraldatzailea galtzen da.

### 3.4. ARAUDIAREN ERAGINKORTASUNA GEHITZEN DUTEN FAKTOREAK

→ **Araudi-taldea sortzeko erabakiaren arrazoiak.** Egitasmoak arrakasta izateko aukera gehiago ditu erabaki bada plana aplikatzea talde batean jokabide arazo oso larriak daudelako, guretzat onartezinak direnak ikuspegi pertsonaletik zein profesionaletik. Kasu horretan, taldeak motibazio berezia du, asmo prebentiboari edo hezitzaileari gehitzen zaiona: helburu praktikoa, alegia, traba gutxiagorekin eskolak eman ahal izatea.

Araudia proposatzen denean ikasleen garapen pertsonal eta sozialerako bitarteko bezala edo funtzionamendu demokratikoa ikasteko modu bezala, zailagoa da behar den motibazioari eustea.

Horregatik, ona de arrazoiak gehitzea: niretzat positiboa eta beharrezkoa delako, eta nire ikasleentzat ere positiboa eta beharrezkoa delako.

→ **Taldean gatazka maila baxua izatea.** Gatazka maila zenbat eta txikiagoa, orduan eta errazago eta azkarrago lortzen dira emaitza positiboak. Evidentea da. Hartara, saiatu beharko dugu eramaten zailagoak diren taldeetan emaitzak hobetzen. Halakoetan, estrategia eta neurri gehiago sartzea da gakoa. Batzuk zein besteak proaktiboak izan behar dira; bestela ikasgelako araudia erregelamendu paralelo bihurtuko dugu.

Hemen proposatzen den eredia oinarrizkoa da. Jokabide gatazkatsuen kopuruaren arabera beste neurri proaktibo batzuk, sakonagoak, hartuko ditugu (ikus *Material osagarriak. Talde berezien kudeaketa*).

→ **Ikasturte hasieratik aplikatzea.** Onera da eskolak hasi aurretik eratzea araudi-taldea eta behar diren erabakiak hartzea, horrela, hasieratik sortzen ahal ditugulako aztura positiboak, ikastaldeari aurreko esperientziako inertziak mantentzeko astirik eman gabe. Horrez gain, une horretan, taldeko inor ez da seinalatua edo markatua sentituko. Proiektua ikasturtea hasi eta gero ezartzen denean, ikasle batzuk uste dute *bridatu* nahi dituztela eta zaila da ikasleak ohartzea proiektuaren hezkuntza balioaz eta pertsona guztiendako dakarren onuraz.

Hala ere, batzuetan ikusi dira esperientzia positiboak hasierako ebaluazioan haren beharra antzeman ondoren aplikatu denean araudia. Une horretatik aurrera, zenbat eta beranduago esku hartu, denbora eta aukera gutxiago izanen ditugu araudiak xede duen hezkuntza prozesua garatzeko.

Azkenean, gelako giroa hobetzen denean, nabarmen hazten da ikasle guztien errendimendua. Ebaluazioetako emaitzen estatistikek frogatzen dute hori; ez da gure hautemate subjektiboa bakarrik.

## 4. Nahi ez diren jokabide eta jarreraren **prebentzioa**

Proaktiboa eta hezitzailea izateaz gain, araudi mota hau oso baliagarria da gatazkei aurrea hartzeko eta zentzu horretan, zehazki, ondoko ezaugarriak ditu:

- ▶ Inklusiboa da pertsona guztiek dutelako elkarrekin bizitzen ikasteko aukera, baztertuak izan gabe. Taldean ez ditu banaketak egiten, onak alde batetik eta txarrak bestetik. Aitzitik, taldea batu egiten du, denek batera ikasten dute elkarrekin bizitzen. Prozesuaren amaieran gertatuko balitz norbaitek ikasgela utzi beharra, izanen litzateke pertsona horrek uko egin dielako izan dituen inklusiorako aukera guztiei.
- ▶ Argi zehazten du zer jokabide ez diren nahi. Denok dakigu nola funtzionatuko dugun eta zer gertatuko den; horrek sendotasuna eta fidagarritasuna ematen dizkio proiektuari. Nola funtzionatuko dugun jakiteak eta, beraz, arrazoiak eta ondorioak jakiteak, jokabide jakin batzuk izateko asmoa kentzen die ikasle zenbaiti. Beste batzuetan asmoa burutik kentze hori gertatzen da egiaztatzen dutenean beste pertsona batzuei kalte egiten dien jokabide batek bere ondorioa duela. Berdina gertatzen da egiaztatzen dutenean jarrera kolaboratzaile batek ondorio positiboak dituela.
- ▶ Irakasleei segurtasuna ematen die zerbait gaizki doanean zer egingen dugun argi eta zehaztasunez jakiteak. Inprobisaziorako tarterik ez dugu uzten ia eta, ondorioz, ikasleak ere seguruago sentitzen dira.

Prebentzio modu asko daude eta erdiesteko zailtasunari begiratuta ere oso desberdinak izaten ahal dira. Badira aldatzen oso zailak diren gai batzuk, adibidez bizikidetzarako hezkuntzari buruz irakasleek dituzten uste eta jarrerak, eta badira ere oso gai zehatzak, ikasgelan mahiak kokatzeko eta espazioa antolatzeke modua kasu.

## 4.1. IRAKASLEEN JARRERA

*Irakaslea izugarri kritikoa izan zitekeen kritika beharrezkotzat zuenean. Baina, harrigarria iruditu arren, inork ez zituen gaizki hartzen haren errietak. Norbaitek horren zergatia galdetuta, Irakasleak erantzun zuen: «Nola egiten den da kontua. Gizakiak loreak bezalakoak dira: ihintz barea jasotzeko prest irekitzen dira, baina zaparrada bortitzaren aurrean uzkur ixten».*

(Tony de Melo)

Talde batekin lan egiteko zailtasun bereziak ditugunean errua edo erantzukizunak besteengan (ikasleak, familiak, administrazioa, gizartea) bilatzeko joera dugu. *Baloiak kanpora botatzea* esaten zaio horri lagunartean. Berez ateratzen zaigun lehenengo epai horrekin gelditu eta ez badugu lantzen, seguruenik ez dugu aurkituko gauzak hobetzeko biderik.

Onartu behar dugu gu ere arazoaren parte garela, ez garela errudun bila ari, konponbide bila baizik, eta beste aldearekin bat egin behar dugula gure etsai bihurtu beharrean; ezinezkoa dela giro ona sortzea enpatiarik gabe eta beste pertsona ulertzen ahalegindu gabe. Hitz horiek guztiak, egun oso hedatuak daudenak, benetako jarreretan bilakatzea zaila da. Hala ere, irakasleen jarrerak zuzenean eragiten du ikasgelan giro ona (edo kontrakoa) eta sustatzen du taldeak autoritatea onartzea.

Giro ona izateak ez du esan nahi arazorik ez dagoenik; egoera hori itxuraz baizik ez da gertatzen. Bizikidetzaren positibodun talde bat da arazoak ebazten dituen inorendako traumarik gabe eta pertsona guztien onerako.

1. eranskinean ariketa bat proposatzen da irakasleek hausnartu dezaten ikasgela kudeatzeko beren moduaren aurrean duten jarrerari buruz.

## 4.2. IKASGELAKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

☑ **Lehen bi eskola asteetako jarduera guztiak xehetasunez planifikatzea.** Normalean egin egiten dugu ikasturte osoan, baina batzuetan gehiago erreparatzen diegu ikasketen edukiei eta ez hainbeste ikasleek egiten duten ikaskuntzaren kudeaketari. Plangintzak kontuan izan behar ditu edozein programaziotan ezinbestekoak diren nahitaezko elementuez gain beste batzuk: balizko asperraldiak, zailtasunak, nekea, kontzeptualizazio eskakizun handiegia, metodologiaren eta materialen monotonia, eta abar. Hori guztia aurrez ikusi daiteke –eskarmentu nahikoa dugu horretarako– eta planifikatu daitezke distentsio uneak, elkarreragina, dinamismoa, metodologia txandatzeko, materialen aniztasuna...

Irakasgaia bera eta irakasgaiaren didaktika menderatzen ditugula erakusten badugu, gure jarrerarekin batera, neurri handi batean onartua izanen dugu gure autoritatea

- ☒ **Jarduera jakin baten metodologia aldatzea, edo jarduera atzeratzea edo bertan behera uztea** (programazioarekin koherentea den bitartean). Jarduera batzuk gobernatzen zailda, batzuetan klasean zalaparta dagoelako, beste batzuetan ikasleak maiz ez daudelako ohituta modu dinamikoan eta parte hartuz ikastera, eta beste batzuetan lan egiteko modu horrek gehiegizko motibazioa pizten duelako ikasleengan.

Lehenago horretaz ohartaraziz gero, beti dago jarduera aldatzeko aukera (taldean eta ahoz egin beharrean banaka eta idatziz egin daiteke), une lasaiago batera uzten ahal da edo besterik gabe kendu. Azken kasu horretan, neurria benetan proaktiboa eta erantzukizun sortzailea izanen bada, lasaitasunez jakinarazi behar da jarduera bertan behera utzi dela, zigorra den itxura eman gabe. Adibidez, ondoko mezua erabili daiteke: *Jarduera bertan behera utzi beharrean gaude oraingoan ez garelako jolasaren arauak betetzeko gai izan. Berriz saiatuko gara honelako jarduera bat egiten dugun hurrengoan.*

- ☒ **Taldeak osatzea eta taldean lan egitea maiz.** Elkarlanean planifikatzen badugu lana, baliabide aparta izanen dugu integraziorako, inklusiorako, motibaziorako eta balioak garatzeko. Baina, parte-hartze jarduera orotan gertatu ohi denez, zaila da gela kontrolpean mantentzea. María José Díaz Aguado-k, gai honetako beste aditu batzuen ildo berean, azaltzen ditu lan mota honek dituen abantailak eta hezkuntza errendimendua optimizatzekeo estrategiak. Hemen bi iradokizun besterik ez ditut aipatuko:

1. Taldeak eratzean kontuan izatea jarreraren faktorea, ez bakarrik maila akademikoa. Askotan, taldea zuzentzen eta motibatzen duena ez da gehien dakiena, interes handia erakusten duena eta besteei gogoia kutsatzen diena baizik. Beste batzuetan *gurditik tiraka ari dena* pertsona solidarioena da, atzean gelditzen direnez eta etsitzen dutenez arduratzen dena.
2. Talde lanaren autoebaluazio erregistroak erabiltzea (2. eranskina), guk gelan gertatzen denari buruzko oharra idazten baditugu ere. Ikasle bat arduratuko da inprimakia betetzeaz, taldeko gainerakoek gainbegiratuta. Aurkeztutako lan bakoitzeko nota bakarra emanen da, baina taldeko kide bakoitzaren ekarpena eta inplikazioa apuntatuko direnez, horrek lanaren kalifikazio komuna mantendu, igo edo jaitsiko du.

### 4.3. MAHAIEK KOKAPENA ONGI DISEINATZEA

Alde batera utziz garaian garaiko joerak eta norberaren gustuak, irakasgai jakin batean programatzen den lan motak mugatzen du espazio fisikoaren antolaketa.

Mahaiak biribilean paratzea formula egokia da komunikazioa eta elkarreragina errazten dituelako eta, gainera, oso praktikoa da oso erraz pasatu daitekeelako banakako lanetik binaka, hirunaka edo taldetan lan egitera.

Haatik, jokabide disruptiboak pilatzen diren ikasgeletan, kontaktu bisuala etengabe eta oztoporik gabe izateak distrakzioari bide ematen dio eta aise gerta daiteke arretaren galera orokorra.

Gela jakin bat kudeatzea zaila denean probatzen joatea komeni da, kasu batean eraginkorra den erabaki batek ez baitu balioko besteetan. Edonola ere, talde bateko ikasleei beti transmititu behar diegu, naturaltasunez eta beharrak sortu ahala, gelan pertsonen mugimendu ugari izanzen direla.

Eta hori guztia egin bitartean, hartzen ditugun erabakietan ez dugu bistatik galduko proaktibitate kontzeptua. Adibide bezala, ikusi ditzagun nire esperientzian ongi funtzionatu izan duten bi egoera:

- Taldeak ongi funtzionatzen badu (arreta nahikorekin lan egiten du, giroa erlaxatua da, arauak errespetatzen ditu eta pertsonen arteko harremanak onargarriak dira), ikasleei eskatzen ahal diegu klasean nahi duten bezala esertzeko, aldeztatik onartuz irakasleak aldatu egiten dituela funtzionatzen ez duten bikoteak, hirukoteak edo isolatuak.

Bakarrik egotea erabakitzen dutenen artean bereizi behar ditugu egoera horretan ongi sentitzen ez direnak eta, aldiz, horretarako arrazoiak dituztelako isolatzen direnak. Beste batzuek binaka lan egiten duten bitartean lanean bakarka ari diren neska-mutilak ez dira beti gaizki sentitzen. Batzuetan, beren kabuz eskatzen dute, kontzentrazio arazoak dituztelako.

Jakina, hau ezin da egin gelan ia beti binaka edo taldean lan egiten bada. Ikasgelan askotariko mugimenduak eta elkarreraginak gertatzen direnean soilik da ona aukera hori; halakoetan posible da une jakin batzuetan lanean distrakziorik ez izateko isolatuta egotea, betiere ez bada pertsonaren gizarte harremanetako zailtasunengatik.

- Laneko eta harremanen giroa kudeatzea zaila denean guztiz kontrakoa proposatzen da: taldeari planteatuko zaio banakako lerroetan paratzea mahaiak eta esanien diegu banaka edo hirunaka lan egiteko aukera irabazi dezakeela ikasle bakoitzak, baldin eta jarrera positiboa eta lanarekiko interes argia erakusten baditu. Ikasleen erabakiak errespetatuko dira taldeka jartzeak ongi funtzionatzen badu.

#### **4.4. KLASEAREN HASIERA KONTROLATZEA**

Klasearen hasiera une bereziki garrantzitsua da, horren arabera garatuko delako ondorengoa eta, batez ere, ikasleen jarreraren eta jokabideen gaineko kontrolik ez badago, batera lan egiteko gutxienez desegokia den gogoarekin hasiko garelako denok. Funtsezkoa da horren inguruko erabakiak hartzea, eskola orduaren gainerakoan ongi lan egiten duten taldeetan ere bai.

*Material osagarrietan* hainbat ideia ematen dira eskolak ordenaz eta soseguz hasten lagunduko duten aztura eta ohiturak sortzeko.





# 5. Nondik hasi? **Prozesuaren azalpena**

Irakasle batek erabakitzen badu lan mota hau saiatzea, pentsatu beharko du proposamenean eta praktikan jarri nahi duen taldean, eta gero materialak haien beharretara egokitu beharko ditu eta taldeari aurkeztu. Baina araudi-taldea bada lana hasi nahi duena, ondoko urratsak eman beharko ditu:

## 5.1. LEHENENGO URRATSA:

### **Ikasturtea hasi aurretik edo hasierako ebaluazioaren ondoren bilduko gara**

Egoera bakoitzean azterketa eta esku-hartze partikularra behar dira. Hemen aurkezten diren iradokizunak emaitza positiboa izan duten esperientzietan oinarrituta daude. Ez du esan nahi gauzak beste modu batean egiterik ez dagoenik. Irakasleen sormenari esker, behar zehatz bakoitzerako erabakirik egokienak hartuko dira.

Printzipioz, araudi mota hau ezarri nahi dutenek bilera bat egin beharko lukete; bilera modu informalean eta berez deitu dezakete. Haatik, proiektua sendoagoa izanen da Bizikidetzak Batzordeak edo Zuzendaritza Taldeak deitzen badu bilera, irakasle talde osoei zuzendurik, horiei lan proposamena azaltzeko. Lehenik aurkezpen labur bat egingen da eta, ondoren, proiektua abian jartzeko prest daudenek bakarrik jarraituko dute bileran, hots, gero araudi-taldeak osatuko dituztenek.

Bilera honetan zenbait erabaki hartuko dira, adibidez, parte-hartzaile bakoitzak ikasle bat aukeratuko duen jarrera eta jokabidea hobetzen lagundu diezaion edo materialak egokitu behar diren ikastetxearen eta talde bakoitzaren errealitatera.

## JOKABIDE DISRUPTIBOENAK DITUZTEN IKASLEEKIN TUTORETZA LANA

---

### **1. Ikasleak aukeratzea.**

Araudi-taldeak erabakiko du zein ikaslek erantzun diezaioketen pertsonalizatutako laguntzari. Xedea da ikasleari laguntzea gatazkari buruzko baterako hausnarketa objektibo baten prozesuan: diagnostikoa, ondorioak, aukerak, konponbideak, itxaropenak... Kontua ez da zer egin behar duten esatea, baizik eta gogoeta egin dezaten laguntzea, erabaki dezaten zer egin nahi duten eta hori lortzeko bitarteko egokiak zein diren.

### **2. Jokabide tutoretzen banaketa.**

Normalean, araudi-taldeko irakasleek tutoretza lana egiten dute motibaziorik gabeak eta pasiboak diren ikasleekin eta lider negatiboek jarraitu edo horien jokabideak errepikatzen dituztenekin. Diziplinagabeko ikasle multzo horri lagunduko dio taldearen tutore "ofizialak", tutoretza orduan Bizikidetzaren Araudia landuko baitu. Orientatzaileak ikasle mota zailenekin egiten du tutoretza lana: ez motibaziorik ez diziplinarik ez dutenekin.

**3. Kasuari buruzko dokumentazioa.** Jokabidearen tutoreak informazioa bilduko du tutorearengandik, orientatzailearengandik, ikasketa buruarengandik... Horrekin kasuari buruzko isilpeko txostena irekiko du, informazioa gehituko zaiolarik elkarrizketak egin ahala.

**4. Elkarrizketak.** Onena da jokabidearen tutoreak aurretik bizikidetzaren gaineko prestakuntza izatea, baina ez badu, jo dezake Bizikidetzaren Batzordera edo erabili ditzake *Elkarrizketa* izeneko agiria (*Material osagarriak* atalean) eta Bibliografia atalean aipatutako materialak.

Elkarrizketak egiteko bi aldeek erabakiko dituzte tokia eta noiz izanen den arreta (jolasaldietan, zaintzetan, arratsaldeko ikasketa orduan...). Aldez aurretik alderdi horiek erabakita izanez gero, zailagoa izanen da ahaztea eta ekidinen dugu hitzordua egin nahi dugun bakoitzean bata bestearen bila ibili behar gogaikarria.

Aldiro berrikusiko dugu jokabidearen erregistroa (3. eranskina), ikusteko ikasleak aurrera ala atzera egin duen edo geratu egin den. Horrela, eduki berriak sartzen ahal dira hurrengo elkarrizketetan.

**5. Esku-hartzearen amaiera.** Araudi-taldeak erabakitzen duenean jokabidean aldaketa positiboa izan dela eta aldaketa hori denboran luzatu dela, itxi egiten da esku-hartzea. Halaber, itxiko da ikusten badugu hasierako jokabideak irauten duela tutorearen eta ikaslearen artean bat etortzerik ez dagoelako. Kasu horretan, araudi-taldeko beste bat saiatu daiteke laguntzari berrekiten.

Egokia jotzen den unean, baina ezinbestean prozesuaren amaieran, iritsitako erabaki eta konpromisoen laburpena idatziko da, gai pribaturik jaso gabe. Araudiaren tutoreak erabaki ohi du informazioa nori helarazi, baina posible da kontu hau hasieratik gure proiektuan zehaztea.

## ARAUDIAREN EREDUA TALDE BAKOITZAREN BEHARREI EGOKITZEA

---

ileraren deitzaileak emanen du materiala, eta gero erabakiak hartu beharko dira testuingurura egokitu dadin. Horretarako ondoko ekintzak egitea komeni da:

- ◆ Aldatu nahi ditugun jokabideak (4. eranskina) aukeratzea, eta berrikustea horien azalpen arrazoitua eta araua ez errespetatzearen ondorioak. Eman-dako materialeko ideiak aldatzean edo ideia berriak sartzean gogoratu behar da erabaki berriek izaera proaktiboa behar dutela izan.
- ◆ Jokabidearen erregistroa (3. eranskina) moldatzea eta bertan idaztea jarraitu beharreko ikasleen izenak eta zein irakasgaitan egingen den. Egunero jokabidea erregistratzeko segundo batzuk besterik ez dira behar eta informazio asko ematen du begiratzen diren alderdiei eta begiratzen ari den pertsonari buruz. Demagun nik, proiektuan parte hartzen duen Euskara irakasleak, erregistroan ikusi dudala tutoretzapeko bost mutilak jokabidea hobetzen ari direla irakasgai guztietan nirean izan ezik. Nik berrikusi beharko dut egoera eta, komeni bada, ikaslearekin elkarrizketa egingen dut. Tutoreari balio dio ikusteko aurrerapenak edo geraldia dauden, interesdunarekin eta familiarekin hitz egiteko, eta banakako kasuak artatzen dituzten irakasleei elkarrizketak bideratzeko balio duen informazio argi eta zehatza ematen die.

Zuhurtziagatik, erregistroa karpeta baten barruan gordetzen da, taldeko irakasleek erraz begiratu dezaketen toki batean.

Erabakitako aldizkakotasunez, araudiaren tutoreak egoeraren berri emanen dio familiari, telefonoz zein bilera batean, eta azalduko dizkie egindako esku-hartzearen nondik norakoak eta lan prozesuaren hurrengo urratsa.

- ◆ Gelako espazioa antolatzeo aukeretan pentsatzea, espazio pertsonalaren tokia sortzearen. Toki horrek gauza askotarako balio du: baretzeko, kontzentratzeko, hausnartzeko, taldean nola egiten den lan ikusteko... Espazio pertsonalaren tokira bidaliko ditugu arrazoirik gabe eskolak eteten dituztenak, arreta galarazten dutenak edo jokabideren bati buruz hausnartu behar dutenak.

Normalean toki hori ez da askotan erabili behar izaten, agian hasieran bai. Berandu gabe, ikasleek erabakitzen dute beren tokian gelditzea, taldearentzako positiboa den jarrera gordez. Beraz, aski izaten da sobera den mahai bat erabiltzea. Begira egoteko tokirik egokiena gelaren hondoa izaten da.

Toki hori maiz erabili behar izanez gero banako mahaien lerro bat paratu daiteke, lekurik bada. Egoeraren arabera, gure mahai ere erabili dezakegu.

Edozein kasutan, espazio pertsonalaren tokian dagoena bere mahaira itzuliko da eten duen azalpena edo jarduera bukatzean. Klase horretan bertan edo handik gutxira itzuli behar badu espazio pertsonalaren tokira, orduaren gainerakoan geratuko da han, gogoetarako fitxa (5. eranskina) betetzen. Fitxa abiapuntua izanen da gero eginen den elkarrizketa laburrerako, hitz egiteko eta gauzak hobetzearen akordioak bilatzeko.

- ◆ Erabakitzea nork koordinatuko duen prozesua tutore ofizialak ez badu proiektuan parte hartzen. Pertsona horrek (araudiaren tutoreak) aldiro jakinaraziko dio familiari ikaslearen bilakaera eta taldeko gainerakoei helarazteko informazioa batuko du.
- ◆ Behar diren bilerak non eta noiz eginen diren erabakitzea. Ebaluazio saioetan minutu batzuk eman ohi dira gai jakin batez jarduteko. Normalean ez dira bilera gehiago behar izaten, jokabidearen erregistroa tresna eraginkorra baita informazio trukatzeko eta jarraipena egiteko. Gairen bat berrikusi behar balitz bilera berezi bat egin daiteke, atsedenaldean edo arratsaldean.
- ◆ Baloratzea familiari proiektuari buruzko informazioa ematen zaion eta hori egiteko modua (ikasturte hasierako bilerak, gutuna...). Informazioa ematen zaie gure proiektuarekin koherenteak izan daitezten eta lagundu dezaten edo, gutxienez, etxean proiektuaren aldeko jarrera erakutsi dezaten.

Planaren diseinua bukatzean, hartutako erabakiak irakasle taldeko gainerakoei jakinaraziko zaizkie, badaezpada, proposamenaren zehaztasunak ezagutu ondoren beste norbaitek araudi-taldean parte hartu nahi balu ere.

## 5.2. BIGARREN URRATSA:

### Taldeari proiektua azalduko diogu

Ikasturteko lehenengo tutoretza orduetan edo hasierako ebaluazioaren ondoren, araudiaren tutoreak edo taldean eragin positibo handiena duen pertsonak aurkeztuko ditu esku-hartze planaren helburuak eta ezaugarriak, eta ikasleei eskatuko die beren ikuspegia emateko.

Lehenengo klaseetarako ondoko jarduerak proposatzen ditugu:

**1. Arauen beharrekiko sentsibilizazio jarduera batekin hastea.** Sentsibilizazioa lortzeko balio duten hainbat formula eraginkor eta motibagarri daude. Batzuetan mahai-joko bat eramaten da gelara eta taldeari eskatzen zaio arau gabe jolasteko. Beste batzuetan taldetan gogoeta egiteko dinamikak programatzen dira honelako galderei erantzuteko: zergatik behar dira arauak? zer arau? zer eginen dugu betetzen ez badira? Baina aurrekoak baino aukera azkarragoa eta ordenatuagoa ere bada: testu labur eta erraz bat irakurtzea, 6. eranskinetako bezalakoa, eta jarraian elkarrizketa edo eztabaida egitea talde handian.

**2. Gelari jakinaraztea planaren helburuak eta ezaugarriak eta alderdi zehatzez informazioa ematea (arauak eta ondorioak, espazio pertsonalaren tokia, proiektuan parte hartzen duten irakasgaiak...).**

**3. Taldeka aldaketa arrazoituak proposatu ditzatela eskatzea.** Araudia hobetzen duten eta haren printzipioekin bat datozen proposamenak onartuko ditugu.

**4. Planteamendua behin betikotzat jotzen dugunean, araudiaren kopia bana ematea ikasleei eta handitutako ale bat gelako kortxoan uztea.** Irakasle bakoitzak behar komunei behar partikularrak gehituko dizkie bere irakasgaiaren izaeragatik edo egoerengatik beharrezkoa bada.

Ikastalde jakin baten egoera bereziki konplexua eta bilakatzen zaila bada bi saio edo gehiago beharko dira (ikus *Materiak osagarriak, Talde berezien kudeaketa* eta *Eskola japoniarra*).

### 5.3. HIRUGARREN URRATSA:

#### Hasiko gara arauak erabiltzen eta arauen ondorioak aplikatzen

##### ARAUDIAREN EGITURA

Araudian, eraginkorra izan dadin, begi kolpe batez ikusteko moduan islatuko dira nire ustez funtsezkoak diren elementuak. 4. eranskinean proposatzen dira ikasgeletan gatazka gehien sortu ditzaketen egoerendako arauak eta ondorioak.

Ikusi dezagun horietako bat:

BEHARRA	ARRAZOIAK	ONDORIOAK
<p><b>Irakasleari errespetuz hitz egitea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez bagaude ados irakaslearen jarrera edo erabakiren batekin, gure desadostasuna adierazteko une egokia izan arte itxaronen dugu.</li> <li>• Lasai eta iraindu gabe adieraziko dugu, gurekin egitea nahiko genukeen bezala.</li> <li>• Irakasleak uste badu une horretan eskolek jarraitu behar dutela, onartuko dugu gaiaz beste une batean hitz egitea.</li> </ul>	<p>Garrantzitsua da pertsona orok merezi baitu errespetua.</p> <p>Erantzun jakin batzuk ematea normala iruditzen bazaigu ere, iraingarriak izaten ahal dira, eta inori ere ez zaio gustatzen iraindua izatea.</p> <p>Gainera, jarrera agresiboarekin edo iraingarriarekin antzeko erantzuna eragin ohi da eta, ondorioz, bi aldeak gaizki gelditzen dira eta gatazka larriagotzen ahal da.</p>	<p>Tonu txarrean esandako zerbaiten aurrean pertsonari eskatzea esan nahi duena errepikatzeke, baina errespetuz eta lasai.</p> <p>Ezezko baten aurrean dauden aukerak: mezua idaztea eta gero taldeari irakurtzea, gogoetarako fitxa betetzea eta gero hitz egitea, 5 minutu itxaron eta zuzentzeko beste aukera bat ematea...</p> <p>Irain edo laidu larriak badira, esan dituenak gelatik aterako da eta Erregelamendua aplikatuko zaio. Aurrerago konpromisoa bilatuko da.</p>

- ◆ Arauak, ahal den neurrian, positiboan eta **behar** bezala adieraziko dira, dagozkien **justifikazio**arekin lagunduta. Gure ikasleek ikasgelako bizitzaren alderdi batzuk arautu beharra berez ulertzen dutela pentsatzeko joera dugu, baina ez da beti horrela izaten. Hori ikasten lagunduko diegu arauen oinarria diren arrazoiak argi esaten baditugu.

Ez dira arautu behar guri pertsonalki gustatzen ez zaizkigun jokabideak edo modu isolatuan gertatzen direnak; eskolak ematea galarazten dutenak soilik arautuko ditugu. Izan ere, lanerako eta harremanetarako giro ona sortzea edo dagoena hobetzea da gure helburua. Adibidez, ez da arau bat behar aulkian nola eseri behar den zehazteko, zer eta gaizki esertzen diren hiru pertsona daudenean. Klasea bukatzean edo une batez aparte hitz eginez, jarduera eten gabe, hiru pertsona horiei eskatzen ahal diegu behar bezala esertzeko.

Bi edo hiru jokabide lantzen hasiko gara eta zorrotzak izanen gara horiek jarraitzen eta kontrolatzen. Gainditzen ditugunean beste araturen bat gehitzen ahal dugu baina, normalean, talde batek ikasgelako bizikidetzaren oinarritzko planteamendua bere egindakoan erraza izaten da beste gai batzuetan berez elkar ulertzea.

- ◆ **Beti azalduko dugu zer eginen dugun arauak hausten badira.** Ez baditugu **ondorioak** ezartzen, pertsona askorentzat (nerabe zein helduentzat) zaila da funtzionamendu mota honekin bat egitea, ordenatua eta errespetutsua izateaz gain askatasunez garatzen baita. Ondorioek laguntzen dute erantzukizuna garatzen. Ez dira zigorrak edo mendekuak baizik eta, aldeztu aurretik taldearen beharrak jakinda ere, ikasle batek izatea erabaki duen jokabide jakin baten ondorio logikoak. Taldearekin konprometitutako pertsona kolaboratzailea izaten ikasteko aukerak dira.

Ahal den neurrian, zeinahi zigor ezarri baino lehen aplikatuko dira ondorioak eta izaera konpontzaile, zuzentzaile, hezitzaile eta proaktiboa izanen dute.

## ZIGORRAREN AURREKO URRATSAK ETA AUKERAK. ADIBIDEA

---

Ikasgelako erregelamendua erabili baino lehen ikasleek hainbat aukera izanen dituzte arauetik errespetua bere egin eta barneratzen joateko. Zazpi urrats dira, araua gogoratzetik ikasgelatik ateratzera arte doazenak. Prozesuak iraun dezake hamabost egun eta hilabete eta erdi artean. Taldearen giroa ez bada aldatu lehenengo bi hilabeteetan (gehienez ere) proiektua berrikusi eta berriz moldatu beharko dugu.

Ikusi dezagun urrats horietan zeharreko ibilbide posible bat, adibide gisa, disrupzio moderatu baina iraunkorreko kasu honetan: Amaiak, DBHko 2.eko ikasle batek, gela barruan nahi duenean oihuka hitz egiten du bere lagunak diren neskekin eta beti ari da mutilekin borrokan. Atentzioa deitzen diodanean erronka begirada, soinu eta hitz lotsagabeekin erantzuten dit.

Balitzeko kasu honentzako hemen ematen den erantzuna ez da posible den bakarra, agian onena ere ez, adibide bat besterik ez da; faseen zentzua xeheago erakutsi eta argitu nahi da honekin.

**1. Araua gogoratzea eta/edo ohartarazpena.** Gogorapen eta ohartarazpenak laburrak izanen dira, eskolak ez eteteko. Ahal bada hitz bakarra, keinuak, isiluneak, begiradak... erabiliko dira. Ohartarazpenen tonua eta asmoa zaintzea komeni da erraza baita, eguneroko tentsioaren poderioz, ohartarazpenak mehatxu bihurtzea. Eta ez badugu ohartarazi dugunaren arabera jokatzeko ohartarazpena mehatxu huts bihurtzen ahal da.

Esandakoa egiten ez badugu, arauak eraginkortasuna galduko du lehenengo urratsetik.

Hasierako une horretan oso eraginkorrak eta hezitzaileak suertatzen ahal diren beste esku-hartze batzuk dira mezu espresak (iruzkin hezitzaile laburrak) eta lehenengo pertsonan esandako mezuak; biek ala biek prestakuntza eta entrenatzea eskatzen dute (ikus *Material osagarriak. Disrupzioa*). Ia ikastetxe guztietan dago bizikidetzako prestakuntzan parte hartu duten langileak eta animatu daitezke trebetasun sozio-komunikatiboari buruzko prestakuntza ematen horiek ikasi nahi dituzten klastroko kideei.

*Amaia bere ikaskidearekin solasean ari da eta ez dirudi isiltzeko asmorik duenik. Bere izena esan dut tonu atseginez eta isiltzeko eskatu keinu batekin. Jokabide horrekin jarraitzen duenez, berdina egin dut baina tonu indartsuagoarekin. Ongi erantzun du, baina handik hamar minutura oihu egin dio begira duen ikaskide bati. Orduan, tonu lasai baina irmoz esan diot: "Amaia, haserretzen hasi behar naizela uste dut ez baitzait gustatzen inork ni etetea; zure laguntza behar dut".*

*Adierazi diot ni nola sentitzen naizen berak behin eta berriro eteten naue-  
nean, eta esan diot zer behar dudan nik edo zer behar dugun denok. Amaiak  
egun batzuk eman ditu bareago, baina berriz itzuli da betikora eta orduan,  
begirada gogorren bat bota diodan arren kasu egin gabe jarraitzen duela  
ikusita, irmo esan diot: "Amaia, besteek bezala arauak errespetatu behar  
dituzu; zuri pribilegioak uzten badizkizut besteekin bidegabea izanen naiz".  
Oraingoan ez naiz nitaz ari, partekatutako balioez baizik. Amaia isildu da  
eta lanari ekin dio aurpegi ilunez eta haserre. Izan ere, mugak errespetat-  
zen ez dituztenei ez zaie gustatzen inork beraiei aurre egitea, ezta guztiz  
asertiboki, zakarra izan gabe eta tonu agresiborik gabe, ("modu onean"  
deitzen dena) egiten bada ere.*

## **2. Espazio pertsonalaren tokia aldi baterako,** jarduera bat egin bitartean. Beste aukera bat da mahaia banatzea klasea eten gabe.

*Hurrengo klasean, ikasle bat hitz egiten ari da (bere txanda baita) eta  
halako batean Amaiak algara egin du ikaskidea esaten ari denarekin ze-  
rikusirik gabe; areago, Amaia ez zen ikaskideari kasu egiten ari. Begiratu  
diot Amaia, keinu batekin hondoko mahai hutsa erakutsi diot eta beste  
ikasleari entzuten jarraitu dut. Gogo txarrez joan da espazio pertsonalaren  
tokira; Amaiak badaki zertarako den. Taldekoek hitz egiten ari zen ikaski-  
deari galderak egiten bukatzean Amaia bere mahaira itzuli da, bera lekura  
itzultzeko nik esan behar gabe. Animoak emateko tonuaz esan diot: "tira,  
Amaia, seguru hurrengo jardueran lortuko duzula".*



*Ez daukat Amaiarekin zertan haserretu: aurrez ikusia zegoena egin du. Berak ere ez du nirekin haserretzeko arrazoirik: gertatuko zela genekiena (onartu genuena) egin dut. Astebete ongi egotea lortu du, baina handik egun batzuetara aurrekoen tankerako jokabideak errepikatu ditu eta nire esku-hartzea aurrekoaren berdina izan da.*

**3. Espazio pertsonalaren tokia behin betiko** (eskola aldiaren gainerakoa), gogoetarako fitxarekin. Fitxa beti eramanen dugu gelara.

*Uste dut Amaiak nirekin indarrak neurtzea erabaki duela. Hurrengo egunean bere ikaskidearekin berriketan hasi da nik hurrengo jarduerarako jarraibideak eman bitartean. Amaia mahaira hurbildu eta gogoetarako fitxa eman diot, keinu batekin espazio pertsonalaren tokia erakutsi eta esan diot: "Amaia, uste dut pentsatzeko eta hitz egiteko garaia dela honezkero. Jolasaldian ikusiko dugu elkar". Noski, mezua lasai esan dut, benetan lasai bainago, badakidalako urrats honek huts egiten badu hurrengoan zer egingen dudan.*

**4. Elkarrizketa** laburra jazotakoaren ondoko lehenengo jolasaldian gogoetarako fitxaz aritzeko. Fitxa gorde egingen dugu ikasketa buruarentzako egiaztargiri gisa, norbait azkenengo urratsera iritsiko balitz.

*Jolasaldian Amaia bere gelan gelditu da, gogoetarako fitxarekin nire zain. Idatzi duenari buruz mintzatu gara eta adeitasunez haritik tira egin dut galdera bakoitzean, erantzunak hobeki landu eta garatu ditzan. Ez dut errudun sentiarazi nahi edo Amaiak barkamena eskatzea edo heldu batek entzun nahiko lukeena esatea. Gertatuari buruz gogoeta egiten eta bere ondorioak ateratzen lagundu nahi diot. Gatazka bihurtuko dugu ikasteko eta gure harremana hobetzeko aukera batean. Elkarrizketaren ondoren ikusi dut nola ireki den nirekin. Uste dut orain bai, bat egingen duela taldeko dinamikarekin.*

**5. Akordioak edo konpromisoak bilatzea** banako beste elkarrizketa batean, oraingoan luzeago mintzatu. Konpromisoaren testua sinatu da eta konpromisoa hartu duen aldeari bere karpeta gordeko duen kopia bat eman zaio. *Material osagarriak* ataleko *Akordioak eta konpromisoak* dokumentuko ere duen orriak egokitzen ahal ditugu.

*Ez dakit zer gertatzen zaion Amaiari, nik uste nuen dena ongi zegoela, baina egun batzuk lasai-lasai egon eta gero... ederrak egiten hasi da. Dagoeneko ez du nirekiko errezelarik, nire ezarritako mugak onartzen ditu, baina bere horretan jarraitzen du. Horrek esan nahi du ez dela nire kontra ari, ez dela nire autoritateari erronka egiten ari, esan nahi du jendaurrean zerbait gertatzen zaiola.*

*Okerren portatzen den irakasgaiko klasetik atera dut (kasualitatez, ordu horretan ez dut klaserik) eta bere jarreraren zergatia galdetu diot. Hitz egiten utzi diot eta esaten duenagatik interesa erakutsi dut, zerbait ulertu ez dudanean bakarrik eten dut, edota informazio esanguratsu gehiago lortu nahi dudanean bakarrik, eta azkenean galdetu diot ea zer behar duen berak. Gero azaldu diot nola ikusten ditudan nik gauzak eta nire beharra ere esan diot. Akordio batera iritsi gara, konpromiso zehatzekin.*

**6. Familiari jakinaraztea** agendaren bidez, telefonoz edo elkarrizketa bidez. Urrats honen berri emanen diogu tutore ofizialari.

*Amaiaren familiarekin elkarrizketa izan ondoren ez dut ezer garbirik atera, etxean hemen baino okerrago daudelako, Amaiarekin zer egin ez dakitela.*

*Gure konpromisoa bete ezean gelatik atera beharko da. Laguntzearren, Amaia apur bat nahasita ikusten badut, eta dena pikutara joan aurretik, eskatzen diot kopia ateratzeko eta konpromisoa beste behin irakurri dezala. Lagungarria zaio. Baina badaezpada, egun batean bi idazki eraman ditut irakurri ditzan: ikasketa buruari eramateko kanporatze jakinarazpena eta familiari emateko zorion gutuna. Gero esan diot: "ongi aukeratuko duzula espero dut".*

*Izugarri gustatu zitzaion familiari igorri nion gutuna eta aldi batean nahiko lasai eta nigandik hurbil izan zen. Baina ez zen nahiko izan behin betiko jarrera positiboa gorde zezan.*

**7. Deribazioa.** Deribazioa da ikaslea gelatik kanporatzea eta artatua izan dadin ikastetxeko beste toki batera bidaltzea. Onena izanen litzateke bizikidetzan prestakuntza duen irakasleren bat izatea, modu teknikoan elkarrizketa egiteko gai dena, ahalik eta denbora gehien (ikus Material osagarriak, Bizikidetzeta gela). Egoeraren arabera baloratuko dugu komeni ote den kasua Bizikidetzeta Batzordera, orientatzaileari edo ikasketa buruari igortzea. Edonola ere, ikastetxeko erregelamenduan ezarritako zigorrek aplikatuko dira.

*Taldea lanean ari dela, Amaiari eskatu diot nirekin pasabidera ateratzeko memento bat, eta esan diot: "Ez garenez gai izan gogoetarekin eta bion artean hitz eginez arazoa konpontzeko, ikasketa buruarengana joan beharko duzu ikastetxeko arau eta zigorrez mintzatzeko. Egunen batean aurreko bidera itzuli eta berriro hasi nahi baduzu, hemen naukazu".*

*Orientatzailearekin hitz eginen dut kasuaren balorazioa egin dezan eta lagundu diezagun esku-hartzean estrategia berriak sartzen.*

Kanporatzeko gure mezuaren tonuak guztiz kontrolatua eta errespetuzkoa izan behar du eta, gogorik gelditzen bazaigu, prestasuna ere adieraziko duena.

## ALEGIAZKO KASUAREN ONDORIOAK

---

Amaia kanporatzeko urratsa eman dut aurrekoarekin oraindik ere ez duelako nahikoa denbora izan gelako bizikidetzaren positiboarekin bat egiteko. Amaiak, gainerako ikaskideek bezala, bere istorioak ekartzen ditu gelara eta batzuk onartzea zaila da, nerabezaroan batez ere. Horregatik hasi du inklusio prozesua nahiz eta denbora gehiago beharko duen eta, beharbada, zigor bat ere bai.

Seguruenik, une honetan batzuek pentsatuko duzue hainbeste aukera ematea adarjotzea dela eta beste batzuek, aldiz, zorrotzegia naizela. Hala bada, bi balorazioekin ados nago orain arte ikusi dugun honetan guztian funtsezkoa den elementu bat falta delako: Amaiarekin dudaren harremana eta prozesuan harremanak izan duen aldaketa.

Zenbat aldiz edo zenbatean behin errepikatu behar dira ohartarazpenak? Zenbat aldiz bidaliko dugu norbait espazio pertsonalaren tokira? Prestakuntza mintegietan makina bat aldiz galdetu dizkidazue horrelakoak eta, hain zuzen ere, horregatik aurkezten dut Amaiaren alegiazko kasua (bide batez, behin baino gehiagotan bizi izan dut). Espero dut saiatuko zaretela zuen burua egoera horretan imajinatzen eta pentsatzen nire lekuan zer egingo zenuketen eta zein ondorio izanen zituzketen zuen erabakiek.

Azkenean gelatik kanporatua izan den arren, Amaiak bere ikaskideek izandako aukera berak izan ditu baina ez ditu aprobetxatu. Hala ere, zuzentasunez eta errespetuz tratatua izan da eta ezarritako neurriak hartu dira berarekin, taldeko beste edozeinekin hartuko lirakekeen neurri berberak. Beraz, ikusi dezake bere jokabideari dagokionez hartzen dituen erabakiek ondorioak dituztela, gelan behinik behin. Esan dezake kanporatu dutela injustua naizelako edo begitan hartu dudalako; baina barru-barruan, bai Amaiak bai gelako besteek ongi dakitene bera izan dela kanporaketaren arduraduna, egoera horretara eraman duten aukeraketak egin dituelako bata bestearen ondoren. Kanporaketa konbentzionalak oso bestelako moduan ulertu ohi dituzte ikasleek.

Kasu honetan ikusleak seguru sentitzen dira egiaztatu dituelako prozesuaren bukaerara tentsio gehiegirik gabe iritsi garela eta ikasten dute posible dela lanerako giro ona lortzea eta, aldi berean, gelan gustura egotea. Era berean ikusten dute, Amaiak bezala, norbaitek bere jokabideari buruz hartzen dituen erabakiak berak bakarrik hautatzen dituela, baina ondorioak ere berak hartu beharko dituela bere gain.

Ni neu, seguru eta lasai sentitu naiz prozesuan zehar, uneoro nekielako zer egin behar nuen neurri batek esperotako efektua ez bazuen. Gainera, taldeak ere bazekienez, azalpen asko eman beharrik ez dut izan (azalpenetan denbora asko galtzen dugu eta normalean urduritu edo asaldatu egiten gaituzte). Izan ere, hasieratik jardun dugu honi guztiari buruz hasierako tutoretza saioetan.

Inor gelatik kanporatzea gustatzen ez bazait ere, azkenean erabaki hori hartzeak lasai utzi nau, hezkuntza prozesuaren parte bat baita. Amaia aste betez kanporatuta egon ondoren –nire irakasgaien bakarrik ez, beste batzuetan ere jokabide disruptiboak zituen- ikastetxera itzultzen denean nola dagoen ikusiko dut. Berak lehenago egiten ez badu, proposatuko diot konpromiso bat bilatzeko berriz hitz egiten hastea. Amaiaren prestasunaren arabera, berriro saiatuko gara edo esanen diot zuzenean erregelamendua aplikatuko dudala. Ordurako orientatzailearekin mintzatuko naiz.

Bukatzeko, honela lan egiten ikasi nahi duten irakasleentzako ona da eragozpen handirik gabeko taldeetan egitea. Mekanika eta materialak menderatzen baditugu, hots, gure egiten baditugu, gauza zailago bat besterik ez zaigu gelditzen: gure emozioak lantzen ikastea, jarrera egokia erdiesteko. Egiten badugu, proiektuaren eraginkortasuna optimizatzea lortzeaz gain gure ongizate pertsonala ere hobetuko dugu.

# 6. Bestelako neurri eta estrategia proaktiboak

Ikasgela kudeatzeko estrategia eta neurrien aukera zabala osatzeko, ikus *Material osagarriak* atala.

Hemen, besterik gabe, nire lanean erabilgarrienak gertatu zaizkidan formulak azalduko ditut: ikasgelako erregistroa, jarreraren eragina irakasgaien kalifikazioan eta barne-hizketa.

## 6.1. IKASGELAKO ERREGISTROA ETA IRAKASGAIKO KALIFIKAZIOA

Ikasgelako erregistroa izeneko tresnak taldea oso denbora gutxian ordenatzen du ikasturte hasieratik erabiltzen bada. Txantiloia bat da (7. eranskina), non ikasle batek gelako gorabeherak idazten dituen astero. Asteko arduradunak izendatzen dugunaren laukitxoa markatuko du. Zalantzaren bat gelditu daitekeela uste badugu, esplizituki eskatuko diogu gauza jakin bat idazteko. Asteko arduradunarekin gure komunikazioa azkarra izanen da, gelako lanak ahalik eta gutxien eteteko.

Txantiloian jasoko dira ohartarazpenak, espazio pertsonalak eta gelako martxari buruz garrantzitsutzat dugun gauza oro. Orokorrean ikasleek naturaltasunez onartzen dute erregistroa eta nabarmena da eraginkorra dela nahasteak (materiala edo etxerako lanak ahaztea...) eta jokabide disruptiboak gutxitzeko.

Aldian behin, erregistroan oharrak dituztenei horren berri emanen diegu eta animatuko ditugu saiatu daitezen gutxiago edo batere ez izaten. Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, oharrak ez dituztenek edo kendu dituztenek irakasgaiaren programazioan jarrerarentzako ezarritako nota maximoa eskuratuko dute. Hortik aurrera, hamarrenak kenduz joanen gara, oharren kopuruaren eta ezaugarrien arabera.

Ikasgelako erregistroak erantzukizuna eta elkarlana sustatzeko balio du, baina baita informazioa izateko eta dagokionari helarazteko ere (ikasketa buruari, familiari, irakasle taldeari, orientatzaileari...).

## 6.2. BARNE-HIZKETA

Barne-hizketa introspektzioa eta gogoeta sustatzeko bitartekoa da. Normalean guk, pertsona heldu eta prestatuok, pentsatzen eta ematen dugu produktu landua. Gakoa da pentsamendua gidatzea edo ildoak ematea ikasleek, apurka-apurka, modu autonomoagoan hausnartu dezaten.

Norberari buruz eta ingurukoekin dituen harremani buruz pentsatzea ariketa aski arraroa da gure nerabeen artean, kontuan baditugu adina, bilakaeraren unea eta kultura digitalean jaio direla. 2000. urtean Joan Ferrés-ek esan zuen bezala, ikuskitzunaren kulturaren seme-alabekin egiten dugu lan eta kontrako haizearekin ari gara nabigatzen. Gogoeta arras zailtzen duen oztopoetako bat, kultura horren ondorio dena, zentzumenen hiperestimulazioa da. Hain zuzen ere, zentzu honetan kontrako haizearekin nabigatzen ari garelako, indartsuago egin beharko dugu arraunean.

Bestalde, barne-hizketaren helburua da erretolikaren edo errietaren ordezkio izatea. Halako diskurtso bat oso ongi prestatua izanik ere eta asertibitate handiz adierazi arren, hartzaile gutxik barneratzen dute mezua, gutxien behar dutenek normalean. Berriz, diskurtsoa ez bada koherentea edota salaketaz, irainez, mespretxuz eta abarrez jantzen badugu, zenbaitentzat desatsegina eta astuna eta gehienentzat alferrikakoa izanen den komunikazio estiloa erabiliko dugu.

Barne-hizketen bidez hausnartzen diren gai ohikoenak izaten dira jokabide disruptiboak, ikaskideen arteko harreman txarra, lanerako motibazioaren galera edo irakasleren batekin harreman txarra. Curriculumaren arloan ere baliatzen ahal da barne-hizketa film baten edo testu baten edukiaren inguruan zein irakasgaiaren beraren martxari buruz gogoeta egiteko.

8. eranskinean barne-hizketaren adibide bat dago ikusgai. Ikasleei hausnarrarazi nahi die taldeko pertsonen artean gertatzen ari diren harreman txarrei eta abusuei buruz. Galdera sorta multzotan antolatuta dago, hainbat egoeren arabera banatuta, bertatik nahi duguna hartu ahal dezagun.

### NOLA ZUZENDU BARNE-HIZKETA?

1. Precisamos aAhalik eta gehien zehaztuko dugu sustatu nahi dugun gogoeta mota eta gogoeta gidatzen lagunduko duten galderak idatziko ditugu. Kasuan kasuko egoerara egokitutako fitxa bat erabiltzen ahal da.
2. Gelan, taldeari esanen diogu isilean pentsatuko dugula: *Gaur proposatu nahi dizuet gogoeta egitea azken aldian gelan gertatzen ari denari buruz... Aurretatuko diegu ez dutela sortzen ari diren gogoetari buruzko adierazpenik egin behar, ez ahoz, ez idatziz: helburua da pertsona bakoitzak norberarekin hitz egitea, gertatzen denaren gainean ideiak argitzeko.*

3. Gogoeta pertsonala egin ondoren bukatutzat eman dezakegu. Kasu honetan modu intuitiboan baino ezin dira ebaluatu emaitzak. Nire esperientzian oinarrituta ziurtatzen ahal dut isiltasun eta kontzentrazio giroa lortzen dela, geletan batere ohikoa ez dena. Eta ez jakin arren sortutako pentsamenduaren maila edo sakontasuna, ariketa honekin egungo munduan (kontrolatzen ez denak ez duela balio ematen duen mundu honetan) balio handia duen zerbait lantzen ari gara. Baldintzak jartzen ari gara baina emaitzak geureganatu gabe.

Hala ere, ariketak bigarren zati bat izaten ahal du: inkesta moduan kontu berei buruzko galderak egiten ahal ditugu. Horrela informazio osoa izanen dugu arazoa hautematen duten moduari buruz eta horri esker prestatu ahalko dugu pertsona guztien beharretara hobekien egokitzen den esku-hartzea. Gainera, inkesta bat egin aurretik barne-hizketa egiten denean erantzunen sakontasuna eta konpromisoa handiagoak izaten dira.





# 7. Eranskinak





## 1. eranskina

### Nola kudeatzen dut nire gela?

Imajinatu klaseko ondoko kasuak eta pentsatu horietako zeinetan zauden. Seguruenik, unearen eta egoeraren arabera, batean baino gehiagotan ikusiko duzu zure burua, baita denetan ere.

#### Zure gela auzitegi bat da: zu epailea zara eta ikasleak akusatuek

IKASLEEI TRANSMITITZEN ZAIENA	EREDUA
<i>Egiten duzu, eta ordaintzen duzu.</i>	Bizikidetzaren behartua

#### Zure gelan oihanaren legeak funtzionatzen du: zu oreina zara eta ikasleak lehoiak

IKASLEEI TRANSMITITZEN ZAIENA	EREDUA
<i>Egiten duzu, eta ez da ezer gertatzen.</i>	Biziraupena: inguratuta zaude

#### Zure gela legerik gabeko oihana da: batzuetan oreina zara, beste batzuetan lehoia

IKASLEEI TRANSMITITZEN ZAIENA	EREDUA
<i>Egiten duzu, egiten duzu, eta ez dut ezer egiten... harik eta kokoteraino nagoela eztanda egiten dudana arte. Batzuetan ordaintzen duzu eta beste batzuetan ez.</i>	Biziraupen ziurgabea: ea zer tokatzen den gaur

#### Zure gela hezkuntza lekua da: zu hezitzailea zara eta ikasleak apendizak

IKASLEEI TRANSMITITZEN ZAIENA	EREDUA
<i>Zuk aukeratzen duzu elkarlanean aritu ala ez, eta ikasten lagunduko dizuten ondorioak izanen ditu zure erabaki horrek. Ikaskuntza horretan lagun izanen nauzu.</i>	Bizikidetzaren ikaskuntza-irakaskuntza

Seguruenik apur bat denetan ikusi duzu zure burua, baina, zer joera duzu? Nora joan nahi duzu? Zer hasi zaitezke egiten hori lortzeko?

## 2. eranskina

# Talde-lanaren erregistroa

### TALDE-LANA

Data: 2013-10-10

Ataza: Baliabide estilistikoak asmatzea	1	2	3	4	5	Oharrak	Kal. ind.
1. <b>Koordinatzailea:</b> Maialen...	+	+	+	+	+		10
2. <b>Idazkaria:</b> Pedro.....	+	+	+	+	+		10
3. Mikel.....			+	+	;	Denbora galtzen du, batzuetan arreta galtzen du eta haserretu egiten da	6
4. María.....	+	+	+	+	+		9,5
5. Silvia.....	+				+	Ekarpen gutxi egiten du baina parte hartzen du eta beti dago adi	7
<b>Lanaren kalifikazio komuna</b>							<b>8</b>

1. Lana puntual hasten laguntzen du (ez du denborarik galtzen).
2. Ados ez dagoela adierazten du arrazoiak emanez eta haserretu gabe (ez da liskarrean aritzen).
3. Ahotsaren tonua ez igotzen laguntzen du (ez du oihu egiten).
4. Bere ekarpenekin lanean laguntzen du (ez du paso egiten).
5. Taldeko gainerakoen ekarpenak entzuten ditu (adi izaten da).

### OHARRAK:

- Koordinatzaile eta idazkari lanak txandaka eginen dituzte taldeko kideek, hurrenkera alfabetikoan.
- Koordinatzaileak denboraren lanak kontrolatzen ditu eta taldekideen jarrerak begiratzen ditu erregistroa betetzeko. Aurkeztu aurretik gehiengoak onartu beharko du.
- Idazkariak idatziz jasotzen ditu taldekideen ekarpenak eta arduratzen da idazkeraren berrikusteaz, garbira pasatzeaz eta lana ezarritako epean aurkezteaz. Beste taldekideen laguntza jaso dezake. Ordura arte gutxien lagundu duenari dagokio laguntzea.
- Bi lagun eztabaidan hasten badira bien izenak idatziko dira, liskarra nork hasi duen kontuan izan gabe.
- Lanak kalifikazio bakarra izanen du, baina taldekide bakoitzak nota desberdina izanen du, gure erregistroan eta taldearenean jasotakoaren arabera.

### 3. eranskina

## Jokabidearen eta jarreraren erregistroa

Tutorea \_\_\_\_\_

Urria	HIZK	GIZ	MUSIKA	TEKNO
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
...				

#### KODEAK:

Lan egiten du. Ez du lan egiten (L, EL)

Jarrera Nahiko Ona, Ona, Erdipurdikoa, Txarra, Nahiko Txarra (NO, O, E, T, NT)

Hobetu da. Txartu da. Mantendu da ( ↑ ↓ → )

## 4. eranskina

### Arauk eta ondorioak

BEHARRA	ARRAZOIAK	ONDORIOAK
<p><b>Eserita egotea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Esaten den material guztia mahai gainean izatea eta gainerakoa gordetzea.</li> <li>- Zakarrontzira bota behar dena mahai gainean izatea eta klase bukaeran botatzea. Agenda mahai azpiko parrillan gordetzea eta soilik esaten bada ateratzea.</li> <li>- Leihoak irekitzea jolasaldian edo gela hutsik gelditzen denean. Itzulitakoan ixtea.</li> <li>- Pertsianak jaiste soilik eguzkiak zuzenean ematen duenean eta soilik nahitaezkoa denean piztea argia.</li> </ul> <p>(Azken bi jardueretarako arduradunak eta txandak erabakitzea).</p>	<p>Altxatzeak (komunera joateko, pertsianak jaisteko, gauzak zakarrontzira botatzeko, motxilatik materiala hartzeko...) arreta galarazten digu guri geuri eta besteei, eta gatazkak sortzen ditu.</p> <p>Mugitu behar dugunean, esanen da.</p>	<p>Araua keinu baten bidez gogoraraztea, eskolak eten gabe.</p>
<p><b>Hitz egiteko ordena errespetatzea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez etetea hitz egiten ari denari.</li> <li>- Irakasleak azalpena bukatu arte itxarotea zalantzak galdetzeko.</li> <li>- Txanda eskatzeko eskua jasotzea eta lasai itxarotea txanda iritsi artean.</li> </ul>	<p>Gelan asko gara eta, denok gure tokia izan dezagun besteena errespetatu behar dugu. Norbaiti etetea hari hitza "kentzea" eta ez dagokigun tokia hartzea da.</p> <p>Errespetu falta da eta etendakoa haserretu egin ohi da.</p>	<p>Norbaitetik konturatu gabe eta arin eteten badio beste norbaiti, keinu batekin ohartaraziko dugu txanda eskatu dezan.</p> <p>Nahita eten badio, jarduera horretan txanda galduko du. Hurrengoan parte hartzen ahal du behar bezala eskatuta.</p> <p>Klase osoan txanda galtzea. Esan nahi zuena idatzi eta aurkezten ahal du.</p>



BEHARRA	ARRAZOIAK	ONDORIOAK
<p><b>Azalpenari edo atazari adi egotea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta ez galtzea eta beste inori ere ez galaraztea hitz eginez, keinuekin edo jolasean.</li> <li>- Oharkabetu nahi dutenak ez dio kasurik egin behar xaxatzen ari zaionari. Egiten badu, bera ere arduradun izanen da.</li> </ul>	<p>Bi ikaskide mintzatzen direnean (baxu mintzatu arren) edo jolasean ari direnean (igartzen ez dela iruditu arren) ez dira enteratzen gelan ikasten ari direnaz.</p> <p>Gainera, arreta galarazten diete ingurukoei. Ez da bidezkoa, adi daudenak esfortzua egiten ari direlako eta marmarrak esfortzu handiagoa egitera behartzen dituelako.</p>	<p>Azalpenei adi ez dagoenak ezin du klasea eten galdetzeko, zalantzen txandara edo kasu egin diezaioketen arte itxaron beharko du. Arreta falta ohikoa bada, kasurik ez ematea, baina hitz egitea arazoren bat dagoen baloratzeko.</p> <p>Bi ikaskidek arreta galtzen badute, keinu batekin ohartaraztea.</p> <p>Bietako edozeinen mahaia banatzea (ez da inporta nork hasi duen).</p>
<p><b>Irakasgai bakoitzerako behar den materiala eramatea gelara.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunero begiratzea, institutura joan aurretik, beharrezko materialak hartu diren eta ohitura hori hartzea.</li> </ul>	<p>Ikasle bakoitzaren betebeharra da. Ekartzen ez duenak denbora galtzen du, arreta galtzen du eta besteei ere galarazten die, aspertzen delako eta "jolasean" ibiltzen delako. Ahaztea ulergarria da, baina ez dugu nahi gertatzea.</p>	<p>Inoiz ahazten bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahal bada materiala emanen diogu edo beste batekin partekatuko du.</li> <li>- Edonola ere, egindako lana koadernora pasatuko du etxean.</li> </ul> <p>Maiz ahazten bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zergatia galdetuko diogu.</li> <li>- Agintzen zaion lana egitea. Ezin bada beste ataza bat egin, molestatu gabe entzutea.</li> <li>- Familiari jakinaraztea antolatzen lagundu diezaioten.</li> </ul>



BEHARRA	ARRAZOIAK	ONDORIOAK
<p><b>Lanak ongi egitea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-- Ariketen jarraibideak ongi irakurtzea.</li> <li>- Laguntzarik gabe egiten saiatzea.</li> <li>- Lanak egin ondoren berrikustea.</li> <li>- Zalantzak ikaskideei galdetzea posible da, baina gaitik urrundu gabe eta denbora galdu gabe.</li> </ul>	<p>Garrantzitsua da lanak ongi egiten saiatzea, ez edozein modutan. Batzuetan lana azkar egiten da lehenbailehen bukatzearen, atsedeen hartzeko edo hitz egiteko, baina horrek ongi ikastea galarazten du: besteek aurrera egiten dute, baina hausnartu gabe lan egiten dutenek ez, seguruenik.</p>	<p>Ikasle batek zalantzak baditu, jarraibideak berriro irakurtzeko eskatzea.</p> <p>Norbaitek aurrez ikusitako denbora baino lehenago bukatzen badu, lana berrikusi egin behar du. Ez badu egiten eta beste norbaiti arreta galarazten badio, haren mahaia banatzea.</p> <p>Lan batean elkarri laguntzen ari direnak beste zerbaitez hitz egiten ari badira, keinu batekin gogoratzea. Berdin jarraitzen badute, bikotekoek edo taldekoek banaka eginen dute lan.</p>
<p><b>Ikaskideak errespetuz tratatzea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez iraintzea ez mintzea</li> <li>- Burlarik ez egitea</li> <li>- Ez jolastea besteak ez badu nahi</li> </ul>	<p>Batzuetan lagunartean inor mintzen ez duten konfiantzako adierazpideak erabiltzen ditugu, itsusiak izan arren. Baina norbait minduta sentitzen denean askotan uste du berdin erantzuteko eskubidea duela.</p> <p>Norbaitek irakasleari esaten badio mindu dutela ez da salataria, bere eskubideak defendatzen ari da.</p> <p>Ez badugu argi jokabide bat errespetuzkoa den ala ez pentsatuko dugu gu horrela tratatzea gustatuko litzaigukeen.</p>	<p>Iraingarria den zerbait ikusten badugu, iraindua minduta sentitu ez arren, egin duenari eskatzea esan nahi zuena beste modu batean adierazteko.</p> <p>Ikasle batek esaten badigu norbait kalte egiten ari zaiola, egileari eskatuko diogu iraina zuzentzeko edo konpontzeko.</p> <p>Ez bada konpontzen eta irain edo laido larriak badira, gelatik atera eta Erregelamendua aplikatuko zaio. Aurrerago konpromisoa bilatuko da.</p>





## 5. eranskina

### Gogoetarako fitxa

IKASLEA ..... IKASTALDEA .....

EGUNA ..... ORDUA ..... IRAKASLEA .....

1. Zer gertatu da? Gertatua modu objektiboan azaldu, ez baloraziorik ez kritikarik egin gabe. Zer, nola, noiz eta norekin gertatu da?.....

.....  
 .....

2. Zergatik jokatu duzu horrela? Zure jokabidearen kausak. ....

.....  
 .....

3. Nola sentitu zara?.....

.....  
 .....

4. Nola uste duzu sentitu direla besteak? .....

.....  
 .....

5. Gertatuak zer ondorio izan ditu zuretzat eta besteentzat? .....

.....  
 .....

6. Beste zein modutan jokatu zenezakeen zuk? .....

.....  
 .....

7. Egiten ahal duzu ezer gaia konpontzeko edo berriz gertatu ez dadin?.....

.....  
 .....

## 6. eranskina

# Arauen beharra

Ikastaldea ongi funtzionatu dezan eta lanerako eta ikasteko giro ona izan dadin funtsezkoa da oinarrizko funtzionamendu arauak errespetatzea. Hori eginez, irakasgaia ikasiko duzue baina gainera giro onean eta tentsiorik gabe.

Arauk beharrezkoak dira pertsonak elkarrekin bizi garen edozein lekutan: arauak daude zuen etxean, zuen koadrilan, zuen auzo-elkartean, futbol taldeetan... Eta hemen, zergatik ez? Gelakoak talde bat gara, lehen esandakoak bezala, hemen biltzen garelako helburu komuna (ikastea eta hezte) dugun pertsonak.

Arauk errespetatu ohi dituztenei arauak balio diete gelan giro bare eta lasaia izateko eskubidea bermatu dadin, denok gustura lan egin dezagun eta ongi sentitu gaitzen. Haatik, badira lanean murgiltzea kostatzen zaien pertsonak eta horregatik arreta galtzen dute eta besteei galarazten diete. Horrelako pertsonen beren jokabidea kontrolatzen laguntzen diete arauak, alegia, arazorik ez izaten eta ez sortzen.

Gogoeta honen xedea da ikusi dezazuela arauak denontzako onuragarriak direla eta, beraz, espero dugu gelako funtzionamenduan lagunduko duzuela arauak errespetatuz. Baina norbaitek ez badu horretan lagundu nahi nola jokatu ere pentsatu beharko dugu. Horregatik, garrantzitsua da argitzea zeintzuk diren beharrak, zergatik diren garrantzitsuak eta zer egin arazoak daudenean.

## 7. eranskina

### Ikasgelako erregistroa

1. Ebaluazioa	Hasiera	Materiala	Ohartarazpenak	Espazio pertsonala	Atazak	Guztira 1.5 gehienez
1. Aitor		↓	↓↓↓↑↑		↓	
2. Amaia	↓↓→	↓↓	↓→	↓	↓↓	
3.						
4.						
5.						
...						

#### KALIFIKAZIOAN ERREGISTROA NOLA ERABILI. ADIBIDEA

Demagun DBHko 2.ean, Euskaran, departamentuko programazio didaktikoak ezartzen duela notaren %15 jarrerari dagokiola. Ikasgelako erregistroak balio du kalifikazio hori modu ahalik eta objektiboenean emateko eta, bide batez, ikasleak motibatzeke beren jarrera kontrolatu dezaten.

Adibide honetan erregistratu diren kontrol faktoreak *normaltzat* hartu dezakegun bigarren kurtsoko talde batenak dira. Taldeko gehienek diziplina eta errespetua gordetzen dituzte, baina ez dira oso autonomoak beren lanak eta materialak kontrolatzeari dagokionean. Ohartarazpen gehienak egiten dira hitz egiteko txanda gorde gabe hitz egiteagatik (behin baino gehiagotan), dagoeneko azaldu diren gauzei buruz galderak egiteagatik eta ataza edo azalpen batean arreta galarazi duten berriketengatik. *Talde ona* dela esanen genuke: nahiz eta umekeriak dauzkaten, jolas egitea gustuko duten eta arreta erraz galtzen duten, oro har, arduratsuak eta *jatorrak* dira.

Printzipioz, talde zaila izatetik urrun daude eta, beraz, gehienetan gelako kontrola inprobisatu egiten dugu edo besterik gabe ez dugu erabiltzen. *Jende jator* hauek aise konturatzen dira ez dela ezer gertatzen jolasteagatik, beste kontu batzuek hitz egiteagatik, adi ez egoteagatik edota une desegokietan broma inozenteak egiteagatik. Kasu batzuetan irakaslea haserretzen da baina ez du lortzen jokabide horiek gelditzea. Eta seguruenik, halako batean, horrelakoak gero eta sarriago, gehiago edo nabarmenago gertatzen hasiko dira. Gainera, ezin ahaztu dugu beti daudela denari paso egiten dioten banaka batzuk, gela gehiegi nahasten duten bizpahiru eta baita agresiboki aurre egitera edo probokatzerira iritsi gabe lotsagabe jokatzeko duten batzuk ere.

Taldearen dinamika hau, disrupzio arinekoa, kontrolatzeko ez badugu esku hartzen bidea emanen diogu disrupzioa mailaz igotzera eta orduan askoz zailagoa izanen

da kontrolatzea. Horregatik merezi du araudia talde guztietan erabiltzea, printzipioz ongi funtzionatzen dutenetan ere bai.

### **Klasearen hasiera**

---

Minutu erdi kontatuko dugu (hasieran minutu bat uzten ahal dugu) behar den materiala ateratzeko eta isiltasunarekin eskolak ematen hasteko. Behar ez den material guztia gordeko da. Denbora bukatzean ondokoen izenak esanen ditugu: hitz egiten jarraitzen dutenenak, ez dutenenak materiala atera, ezinbestekoa eta inork utzi ezinekkoa den materiala falta dutenenak eta etxerako lanak egin ez dituztenenak.

Etxerako lanak jarreraren sartzen dira kontuan hartzen delako zenbat lan ez diren egin. Lan horien kalitateak lanari dagokion kalifikazioaren %25 balio du.

Erregistroaren asteko arduradunak aipatutako pertsonen laukitxoan ikur bat idatziko du (barra, makiltxo, negatiboa, gezia behera...)

Klase bakoitzean minutu bat edo bi behar dira alderdi horien guztien gainbegiraketa orokorra egiteko eta erregistratzeko.

### **Ohartarazpenak, arauetako edozein gogoratzeko**

---

Halaber, ikurra erregistratuko dira norbait izendatzen dugun bakoitzean, dela arau bat gogoratzeko, dela arauen bat hausten ari dela ohartarazteko.

### **Espazio pertsonalaren tokira bidaltzea**

---

Espazio pertsonalaren zutabearen idatzitako oharrek eragin negatibo handiagoa dute kalifikazioan. Hasieran beharrezkoa izaten da baliabide hau erabiltzea, baina azkar konturatzen dira hobeki sentitzen garela arauak errespetatuz gero eta ohartarazpenei kasu eginez gero.

Aldian-aldean (bi edo hiru astean behin), zutabeetako edozeinetan dauden markak ezabatuko ditugu ikasleak aldi batean jarrera eta jokabide egokiak mantendu baditu. Gainera, komeni dela uste dugunean erregistroan idatzitako oharren berri emanen diogu taldeari.

Hau da, hain zuzen ere, ikasgelako erregistroaren balio proaktiboa: zuzentzeak ondorio positiboak dakartza eta ikasleek hartzen dute erabaki hori, beren esfortzuarekin kalifikazioa hobetzeko.

### **Jarrerari dagokion kalifikazioaren ehunekoa ebaluazioan**

---

Gehienez ere 1,5 puntu lortuko dituzte markarik ez badute edo markak ezabatu badizkiegu. 0 puntu lortuko dituzte marken kopurua iristen bada jarreraren ehunekoa galtzeko nahikoa dela erabakitzen dugun kopurura. Eskalaren gainerakoan kontuan izanen da bilakaera positiboa edo atzerakoa den edo geratuta dagoen.

Arau argirik ez dagoenean eta ikasleek ez badakizkitez jarreraren nota erabakitzeko erabiltzen ditugun irizpideak, pentsatzen dute nahi duguna paratzen dugula, ezinikusien eta faboritismoen arabera mugitzen garela..., benetan horrela izan zein ez. Aldiz, argi badute, jarreraren nota hobetzen laguntzen duen motibazio tresna proaktibo bihurtzen da.

## 8. eranskina

# Barne-hizketa: berdinen arteko harreman txarra

### 1. Nork abusatzen du zutaz?

*Nola?*

- Begirada edo keinu txarrak.
- Burlak. Gaitzizenak. Probokazioak. Irainak. Estualdiak. Barregarri uzten zaitu.
- Mehatxuak. Beldurrarazteak.
- Esamesak asmatzen ditu. Zutaz gaizki hitz egiten du. Bakartzen zaitu.
- Bultzadak, zangotrabak, kokotekoak, atximurkadak, ile tirakadak, ukabilkadak, ostikoak.
- Beste gauza batzuk: .....

*Zer egiten duzu zuk zutaz abusatzen duenarekin? ?*

- Paso egiten dut, ez dit inporta
- Ez diot hitz egiten
- Ez dut harekin lan egin nahi edo ibili nahi
- Ez dut ezertarako kontuan hartzen
- Gaizki begiratzen diot
- Egiten didanaren antzeko zerbait egiten diot
- Berarengana hurbildu naiz gaiaz hitz egiteko eta konpontzeko
- Bakean utzi nazala esaten diot
- Tutoreari esan diot arazoaz arduratu dadin
- Jendea bilatzen dut, bakarrik ez egoteko
- Harengatik gaizki hitz egiten dut
- Beste gauza batzuk: .....

*Zergatik erreazionatzen duzu horrela? .....*

.....

.....

*Nola sentitzen zara gertatzen zaizunarekin?.....*

.....

.....

*Zergatik uste duzu abusatzen duela zutaz? .....*

.....

.....

*Gertatzen dena ikusten duten ikaskideek egiten dute ezer? Zergatik? .....*

.....

.....

## **2. Norbaitez abusatzen duzu zuk?**

*Nola?*

- Begirada edo keinu txarrak.
- Burlak. Gaitzizenak. Probokazioak. Irainak. Estualdietan jartzen duzu. Barregarri uzten duzu.
- Mehatxuak. Beldurrarazteak.
- Esamesak asmatzen dituzu. Harengatik gaizki hitz egiten duzu. Bakartzen duzu.
- Bultzadak, zangotrabak, kokotekoak, atximurkadak, ile tirakadak, ukabilkadak, ostikoak.
- Beste gauza batzuk: .....

*Zergatik jokutzen duzu horrela? .....*

.....

.....

*Nola sentitzen zara egiten duzunarekin? .....*

.....

.....

*Nola uste duzu sentitzen dela zure abusua jasaten duen pertsona? .....*

.....

.....

*Ikusleek egiten dute ezer? Zergatik? .....*

.....

.....

### 3. Ikusten duzu norbaitek beste norbaitez abusatzen duela?

*Nola?*

- Begirada edo keinu txarrak.
- Burlak. Gaitzizenak. Probokazioak. Irainak. Estualdietan jartzen du. Barregarri uzten du.
- Mehatxuak. Beldurrarazteak.
- Esamesak asmatzen ditu. Harengatik gaizki hitz egiten du. Bakartzen du.
- Bultzadak, zango trabak, kokotekoak, atximurkadak, ile tirakadak, ukabildak, ostikoak.
- Beste gauza batzuk: .....

*Hori ikustean zer egiten duzu eta nola sentitzen zara?*

- Ez da nire kontua
- Merezia duela uste dut
- Xaxatzen ditut abusatzen jarraitu dezaten
- Pena ematen dit baina ez dakit zer egin
- Pena ematen dit baina beldurra ematen dit zerbait egiteak
- Abusatzaileari aurre egiten diot
- Esaten dut ez zaidala gustatzen ikusten dudana
- Abusua jasaten duen pertsona lagundu eta babesten dut
- Konfiantzazko helduei kontaktatzen diet
- Beste gauza batzuk: .....

*Nola uste duzu sentitzen dela abusuaren biktima?.....*

.....

.....

*Zer gertatuko zaiola uste duzu?.....*

.....

.....

### 4. Orokorrean, pentsatu eta zure buruari erantzun:

Zure ustez, zer ondorio ditu pertsona batzuek beste batzuek abusatzeak, bai biktimarentzat, bai abusatzailearentzat, bai ikuslearentzat? .....

.....

.....

.....  
.....  
.....  
.....

Zer egin dezakezu zuk abusua ekiditeko?.....

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**5. Gogoetaren ondoren zer ondoriotara iritsi zara?**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....



# 8. Material osagarriak

## *(CD-an sartuak)*

### **AKORDIOAK ETA KONPROMISOAK**

Konpromiso mota desberdinen ereduak eta inprimakiak. Agiria Bizikidetzaren Planaren barruan pentsatuta dago harreman pertsonalak hobetzeko eta baita diziplina arazoak bideratzeko ere. Tutoretza koordinazioaren esparruan lan egiteko oinarri bezala balio dezake.

### **BIZIKIDETZA GELA**

Malagako Portada Alta BHIko esperientzia, lehenengo saria jaso zuena bizikidetzako jardunbide egokien lehiaketan (HZM, 2006).

Egitura oso pentsatua eta funtzionala da, gelatik kanporatutako ikasleek elkarbizitzaren ikasteko arreta izan dezaten gertatua. Kasu honetan, proiektuaren izena ez da kanporatuen gelaren eufemismoa.

### **KLASEAREN HASIERA**

Ideiak, klasea orokorrean arazorik gabe garatu arren hastea zaila den taldeetarako. Talde disruptiboen kasuan ezinbestekoa da hasieratik sortzea ohitura positiboak, neurri handi batean horrek baldintzatzen duelako gero nolakoa izanen den klasearen martxa.

### **ESKOLA JAPONIARRA: IKASGELARAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN ADIBIDEA**

Bi planteamendu didaktiko (bata Lehen Hezkuntzarako eta bestea Bigarren Hezkuntzarako), bideo bera ikusi ondoren bizpahiru lana egiteko.

Proposatzen da hamar urteko haurren ikasgela batean bizi diren emozio intentsitate handiko egoeren gainean lan egitea. Giro ona laguntzen eta zailtzen duten jarrerari buruz gogoeta egiteko aukera bikaina da bideoa.

## **TALDE BEREZIEN KUDEAKETA**

Proposamen honek orientabideak ematen ditu ikasgelan kudeatzen zailagoak diren egoerak dituzten taldeetan esku hartzeko. Egoera horiek batez bestekoa baino zailagoak dira; eta taldeek disrupzio oso larria, diziplina-eza eta ikastearekiko motibazio falta dituzte.

Alderdi batzuetan, materialak araudi proaktiboaren antzeko neurriak proposatzen ditu, baina desberdintasun esanguratsuak ditu planteamendu orokorrean.

## **JOLASTOKIKO BIZIKIDETZA**

Jolastokiko arauen adibide soila eta, horrekin batera, integrazioa eta harreman pertsonalak hobetzeko helburua duten jardueren proposamena. Bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzenduta dago.

## **DISRUPZIOA**

Apunteak, bibliografian aipatutako liburu gehienetan eta nik neuk ikasgeletan eta ikastetxeetan izandako esperientzian oinarriturik prestatuak. Agiria hau pentsatuta dago norberak banaka irakurtzeko zein ikastetxeko prestakuntza saioetan taldean lantzeko.

## **ELKARRIZKETA**

Hainbat materialetatik (bibliografikoak, prestakuntzakoan eta ikasgeletan eta ikastetxeetan nik bizitakoa) jasotako apunteak. Tutoreen koordinazio tartean tutoreak prestatzeko erabili daiteke, bibliografian agertzen den De Miguel eta beste batzuk materialarekin (liburua eta bideoa) batera.

## **GELATIK ATERATZEARI UKO EGITEA**

Agiri honek esku-hartzeko orientabideak ematen ditu, ikasgeletan egoera zail hori kontrolatzeko. Gero eta gehiago gertatzen ari da, baina normalean ez dugu jendarrean hedatzen.

## **ERLAXAZIOA**

Lasai lan egiten lagunduko duten bake uneak lortzeko hainbat modu. Bi material mota sartzen dira:

- ▶ Power point erako bi aurkezpen labur, zentzumen hautematearen bidez sosegua ematen dutenak.
- ▶ Bi CD ingelesez eta gaztelaniaz, erlaxazio nahiko landuak zuzentzen dituztenak adin desberdinetarako, hamabi minutu inguruan.

Badira erlaxatzeko beste modu batzuk ere, seguruenik hemen azaltzen direnak baino eraginkorragoak. Baina hauek badute abantaila bat eta da material hauek erabiltzeko ez dela beharrezkoa aurretik prestakuntza izatea.

## **TXOKOAK, MEZU ESPRESAK ETA FORMULEN HEDAPENA (LEHEN HEZKUNTZA)**

Hainbat materialetatik eta ikastetxeetako esperientziatik bildutako materialak. Agiri honek estrategia eta tresna oso zehatzak jasotzen ditu harreman pertsonalak eta komunikazioa hobetzeko.



# 9. Bibliografia

**Carbó, J. M.**, *“Dieciséis tesis sobre la disciplina”*, Cuadernos de Pedagogía 284. zk.

Diziplina ulertzen da sozializaziorako oinarritzko tresna gisa. Ikasleek trebetasun hori garatu dezaten, irakasleei gogoetarako hamasei esakune proposatzen dizkie eta esakune horiek azaltzen ditu.

**Casamayor, G.** (koord) *Cómo dar respuesta a los conflictos. La disciplina en la enseñanza secundaria*. Graó. Bartzelona 2004.

Ikastetxeetako gatazkak gizarteko tentsioen isla dira; planteamendu honetatik abiatzen dira liburukian bildutako artikulak. Batzuek, eskoletako gatazkei aurre egiteko moduak azaltzen dituzte (parte-hartzea, bizikidetza arauak, autoestimua garapena, negoziazioa eta bitartekotza) eta, beste batzuek, azalpen orokorrak ematen dituzte (bizikidetza zer den, gatazken tipologia...).

**De Miguel, C. eta beste batzuk.** *La entrevista: un instrumento de trabajo para el profesorado*. Madrilgo Autonomia Erkidegoko Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza. Madril 1996.

Argitalpena berarekin doazen bideo batekin eta gida didaktiko batekin osatzen da. Elkarrizketa mota desberdinak aipatzen dira eta ondoren elkarrizketa orientatzailearen ezaugarriak azaltzen dira, ikasleekin zein familiekin erabiltzeko. Oso erabilgarria da edozein irakaslerendako, baina bereziki tutoreendako.

Gidan metodologiari buruzko iradokizunak ematen dira eta bideoaren iruzkindun transkribapena agertzen da, eta elkarrizketa bateko jarrera eta prozedurak aztertzeko baliagarria da.

**Díaz Aguado, M.J.** [mariajosediaz-aguado.blogspot.com/.../aprendizaje-cooperativo](http://mariajosediaz-aguado.blogspot.com/.../aprendizaje-cooperativo)

Ikaskuntza kooperatiboa bitarteko gisa bizikidetza hobetzeko, integrazioa sustatzeko eta indarkeriari aurrea hartzeko.

**Fernández, I.** *Guía para la convivencia en el aula*. Praxis 2002.

Gida honetan uztartzen dira disrupzioari, araudiari eta motibazioari buruzko azalpen oso argia eta horiek lantzeko orientabide praktikoak (ataza aurretik, klase hasieran, garapenean eta bukaeran lantzeko).

**Ferrés, J.** *Educar en una cultura del espectáculo*. Paidós. Bartzelona 2007.

Liburu hau funtsezkoa da egungo ikasleak ulertzeko, zehazki, beren formazioan ikuskizunaren kulturaren estimulu guztiak jaso dituztenak, kultura idatziaren estimuluak beharrenean.

\_\_\_\_\_, *La educación como industria del deseo. Un nuevo estilo comunicativo*. Gedisa. Bartzelona 2008.

Gaur egun irakasteko, gogoia piztu behar dugu, publizistek bezalaxe: erosteko gogoia saldu behar da. Horretarako irakasleek komunikazio estilo berri bat behar dute eta mugan egin behar da lan, alegia, kultura idatzia (gure ikasleengandik gero eta urrunago dagoena) eta multimedia kultura (honetan hezi dira gure ikasleak) banatzen dituen lerroan.

Liburuaren bigarren zatian zenbait irakasleren esperientziak azaltzen dira. Irakasle horiek ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen dituzte, originaltasun didaktikoz, irakasgai desberdinetako edukiak irakasteko, matematikakoak barne.

**Gotzens, C.** *La disciplina escolar*. Horsori. Bartzelona 1997.

Liburu honek diziplina ereduak erakusten ditu, teoria psiko-soziologikoetan oinarrituak daudenak. Diziplina definitzen du eta begiratzen dio irakaslearen eta ikasgelaren planteamendu oso batetik, prebentzioa zein esku-hartzea barnean hartuz. Bukaeran, ikastetxe batean diziplina lantzeko proiektu bat ematen du.

**Marchena, R.** *Mejorar el ambiente en las clases de secundaria. Un enfoque práctico para responder a la diversidad en el aula*. Aljibe. Malaga 2005.

Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan egindako ikerlana, ikasleek irakasleen jardunbideen aurrean nola erantzuten duten aztertzen duena. Ikasgeletan benetan gertatutako egoerak agertzen dira.

**Torrego, J. C.** "Modelos de regulación de la convivencia". Cuadernos de Pedagogía 304. zk.

Egileak lehenengo informazioa ematen du eguneroko bizitzan gatazkei heltzeko moduei buruz eta gero ikastetxeetan bizikidetzakudeatzeko hiru eredu nagusiak aztertzen ditu, bakoitzaren alde onak eta txarrak baloratuz: zigorren eredu, harremanena eta integratua.

**Torrego, J. C. eta Fernández, I.** *Protocolo de actuación urgente ante conflictos: violencia grave, acoso escolar, disrupción*. Atlántida proiektua. Kanarietako Gobernua 2009. (PDFa)

**Uruñuela, P.** "La disrupción en las aulas: problemas y soluciones". HZMren bizikidetzat ataria. Disrupzioari buruzko kongresua. Madril 2006.  
Iceberg-aren metafora: disrupzioaren atzean balioak eta sinismenak daude, bai ikasleek bai eta irakasleek.

**Vaello, J.** *Resolución de conflictos en el aula*. Santillana. Madril 2003.  
Orientabide zehatzak, ikasgelako giroarekin eta kontrolarekin lotutako gatazkak ebazteko.

\_\_\_\_\_, *Las habilidades sociales en el aula*. Santillana. Madril 2005.  
Lehenengo zatian liburuak iradokizunak egiten ditu autokontrola, autoestimua, erresilientzia, empatia eta asertibitatea indartzeko. Hori guztia irakasleei zuzenduta dago baina ikasleentzat ere berdina balio du. Liburuaren gainerakoa harreman mota desberdinen gainean jarduten da: irakasle-ikasle harremana, irakasle artekoa eta irakasleena zuzendaritzarekin.

\_\_\_\_\_, *Cómo dar clase a los que no quieren*. Santillana. Madril 2007.  
Estrategia oso zehatzak ematen dira ikastalde disruptiboen kasuan gelako giroa kudeatzeko. Egilearen aurreko liburuetako orientabide nagusiak jasotzen ditu.

\_\_\_\_\_, *El profesor emocionalmente competente. Un puente sobre "aulas" turbulentas*. Graó. Bartzelona 2009.  
Ikasgelen eta ikastetxe baten lanaren artean gertatzen den fluxu emozionala ezagutzea eta kontrolatzea komeni da. Irakasleentzat ezinbestekoak diren oinarrizko gaitasunetatik abiatuta, egileak gogoetarako eta norbera ezagutzeko tartea irekitzen ditu galdetegi erako jarduerekin. Jarduera horiekin askotariko edukiak lantzen dira: irakaslearen jarrera, erresilientzia, koherentzia, autokontrola, autoestimua, eta ikastetxeko lantaldeetan sartzea.

